



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud

Dirección de Salud Pública y Adicciones

**ZALDIBARKO ZABORTEGIKO LUIZIAREKIN ETA SUTEAREKIN LOTUTAKO
AIREAREN KUTSADURAREN EBALUAZIOA**

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 19a



Edukia


1.- HITZAURREA.....	4
2.- TXOSTENAREN NORAINOKOA.....	5
3.- KONPOSATU ORGANIKO LURRUNKORRAK.....	6
3.1 MATERIALA ETA METODOA.....	6
3.1.1 Laginak hartzea eta laginketa-ekipamenduak.....	6
3.1.2 Kuantifikazio-metodoa.....	6
3.1.3 Laginketa-puntuak.....	7
3.1.4 Osasunerako eraginak ebaluatzeke metodologia.....	8
3.2 EMAITZAK.....	10
3.2.1 Laginketa jarraituak (Ermua eta Eibar).....	10
3.2.2 Eskuzko laginketak.....	11
3.3 EZTABAIDA.....	12
3.4 ONDORIOAK.....	13
3.5 BIBLIOGRAFIA.....	14
4.- PARTIKULAK (PM ₁₀), HIDROKARBURO AROMATIKO POLIZIKLIKOAK (HAP) ETA METAL ASTUNAK	16
4.1 MATERIALA ETA METODOA.....	17
4.1.1 Laginak hartzea eta laginketa-ekipamenduak.....	17
4.1.2 Teknika analitikoa.....	17
4.1.3 Laginketa-puntuak.....	18
4.1.4 Osasunerako eraginak ebaluatzeke metodologia.....	18
4.2 EMAITZAK.....	20
4.3 EZTABAIDA.....	24
4.4 ONDORIOAK.....	25
4.5 BIBLIOGRAFIA.....	26
5.- DIOXINAK.....	28
5.1 SARRERA.....	28
5.1.1 Orokortasunak.....	28
5.1.2 Baliokidetasun toxikoko faktoreak (TEF) eta baliokide toxikoak (TEQ).....	29
5.1.3 Jatorria/Iturria.....	30



5.1.4 Dioxinak eta haien ondorioak biztanleria orokorraren osasunean.....	30
5.1.5 Emaitzak ebaluatzeko eskura ditugun erreferentziak.....	31
5.1.6. Dioxinen presentzia hainbat inguruetan.....	33
5.2 MATERIALA ETA METODOA.....	34
5.2.1 Laginak hartzea eta laginketa-ekipamenduak.....	34
5.2.2 Teknika analitikoa.....	34
5.2.3 Laginketa-puntuak.....	35
5.3 EMAITZAK	35
5.4 EZTABAIDA.....	38
5.5.- ONDORIOAK	40
5.6 ERREFERENTZIAK	41
6.- AMIANTOA	45
6.1 MATERIALA ETA METODOA.....	46
6.1.1 Laginak hartzea eta laginketa-ekipamenduak.....	46
6.1.2 Teknika analitikoa.....	46
6.1.3 Laginketa-puntuak.....	46
6.2 EMAITZAK	48
6.3 ONDORIOAK.....	48
6.4 BIBLIOGRAFIA	48
1. ERANSKINA.- AZTERTUTAKO PARAMETROAK	49
2. ERANSKINA.- LAGINKETA-PUNTUEN KOKAPENA	52
3. ERANSKINA.- KONPOSATU ORGANIKO LURRUNKORREN ESTADISTIKAK	56
4. ERANSKINA.- KONPOSATU ORGANIKO LURRUNKORRAK. ERREFERENTZIEKIN EGINDAKO ALDERATZEAK.....	64
5. ERANSKINA.- PM10, HIDROKARBURO AROMATIKO POLIZIKLIKO ETA METALEN ESTADISTIKAK	71
6. ERANSKINA.-DIOXINA ETA FURANOEN EMAITZA (PCDD/F) ETA PCB.....	80

1.- HITZAURREA

Otsailaren 6an, 16:30ak aldera Zaldibarko Verter Recycling 2002 SL konpainiak jabetzan duen hondakin ez-arriskutsuen zabortegian, luizi bat gertatu zen eta instalazio hartan zegoen hondakin-masa bat jauzi zen. Hurrengo egunean sute bat sortu zen zabortegiaren goiko aldean, hainbat fokurekin. Sutea otsailaren 18ra arte egon zen aktibo, eta hilaren 20ko gauean eta 22ko goizaldean beste sute batzuk ere piztu ziren, zeinak ordu batzuen buruan kontrolatu baitzituzten. Honako ortoargazki honetan, zabortegiaren kokapena eta ingurua ikus daitezke.



Ingurumen Sailburuordetzako Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareak, Osasun Publikoko Laborategiarekin koordinatuta, zortzi bitarteko mobilizatu zituen, airearen kalitatea zaintzeko. Ildo horretan, iturriari zegokionez, errekontzetan airera daitezkeen kutsatzaileen zaintza ezarri zen, bai eta konposatu organiko lurrunkorren sorta bat ere, osasunaren ikuspuntutik duten garrantzia kontuan hartuta. Laginketarako puntuak hautatzean, kontuan hartu ziren inguruko biztanleriaren banaketa eta kutsatzaileen sakabanaketa, baldintza meteorologikoak oinarri harturik. Aukera posibleen artean, eraginik handienak izatea aurreikusitako puntuak hautatu ziren, eta, beraz, osasunerako arrisku handienekoak. Zabortegitik 5 km-ko erradioan, Eibar, Ermua eta Zaldibar daude: guztira 46.500 biztanle inguru bizi dira udalerrri haietan. Airearen kalitatea kontrolatzeko lehen zaintza-plan bat egin zen, erorketa-faserako eta haren osteko sute-faserako, bai eta Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearen bigarren jarraipen-plan bat¹ ere, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin lankidetzan.

Ingurumen Sailburuordetzak egindako txostenean ikus daiteke laginketari buruzko informazio zehatza (puntuak eta maiztasunak), bai eta zehaztapen analitikoak eta zaintzaren emaitzen interpretazioa ere, giroko airearen kalitatearen ikuspegitik².

¹ [Airearen kalitatea kontrolatu eta zaintzeko plana](#)

² [Zaldibarreko zabortegiaren inguruneke airearen kalitate-mailaren monitorizazioari buruzko txostena](#)

Txosten honen xedea da airearen kalitatea zaintzetik eskuratutako emaitzak ebaluatzea, herritarren osasunerako arriskua aintzakotzat harturik.

Ezbeharrak gertatu zenetik, arriskua aztertzeko faseak aurreikusi ziren: osasunerako arriskua ebaluatzea, balizko arriskua kudeatzeko neurriak hartzea, eta, azkenik, alderdi interesdunei eta, oro har, herritarrei jakinaraztea. Osasun Sailburuordetzak etengabe egin zituen horiek guztiak, Eusko Jaurlaritza buru duen Zaldibarko zaborteziaren erorketa koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko mahai teknikoaren esparruan.

Airean neurtutako dioxina- eta furano-mailek izaniko emaitzen ondorioz, arriskua kudeatzeko neurriak hartu behar izan ziren, hala nola sutea itzaltzeko lanei lehentasuna ematea eta herritarrei prebentzio-gomendio batzuk helaraztea, kutsatzaile horiekiko esposizio-maila minimizatze aldera. Zaintzaren emaitzak eta egindako jarduerak jakinarazteko, honako bitarteko hauek baliatu ziren: Jarraipen eta Koordinazio Mahaiaren eguneroko prentsaurrekoak; Osasun Sailaren prentsaurreko espezifikoa, airearen kalitateari buruzko neurrien berri emateko; informazio-buletinak, ingurumenaren eta osasunaren arloan eskumena duten Sailen webguneen bidez; eta informazio-bilerak, eragindako eremuetako biztanleekin. Otsailaren 9an hartutako lagineko dioxina- eta furano-mailaren lehen emaitzak hilaren 14an atera ziren, 14:30ean, laborategira eramateko eta zehaztapen analitikoak egiteko behar den denbora igaro ondoren. Egun horretan bertan, 17:30ak aldera, herritarrei bi gomendio egin zitzaizkien prentsaurreko baten bidez, prekauzio-printzipioari jarraikiz: gomendatzen zen etxebizitzak ez aireztatzea eta leihoak ahalik eta denbora gehien edukitzea itxita, batez ere gau-partean; eta, ahal zen neurrian, ez egitea aire zabalean kirol-jarduerarik, atzera bestelakorik jakinarazi arte. Otsailaren 20an Osasun Sailak erabaki zuen prekauzio- eta prebentzio-gomendio horiek kentzea, sutearen egoera eta otsailaren 10etik 16ra hartutako laginen emaitzak aztertu ondoren.

Txosten hau zaintzarako hautatutako kutsatzaile-taldearen arabera egituratu da. Hauek dira taldeak:

- Konposatu organiko lurrunkorrak (KOL).
- Material partikulatua (PM₁₀), hidrokarburo aromatiko poliziklikoak (HAP) eta metalak.
- Dioxinak eta furanoak (PCDD/F eta PCB).
- Amiantoa

Zaborteziaren hondakin-masaren zati bat jaustean sorturiko sutea izan zen kutsatzaile-iturri nagusia; ondorioz, bi fase kontuan hartuta egin da kutsatzaile multzo bakoitzerako datuen tratamendua eta emaitzen eztabaida, amiantoaren kasuan izan ezik: sute aktiboa eta itzalitako sua.

2.- TXOSTENAREN NORAINOKOA

Txosten honetan, Zaldibarko zaborteziaren otsailaren 8tik 18ra bitartean izandako suteak eragindako emisioekiko inhalazio bidezko esposizioak herritarren osasunean eragin ditzakeen arriskuen ebaluazioa eta datuen analisia deskribatzen dira (hain zuzen ere, hamaika egun horietan egon baitzen sutea aktibo). Halaber, barnean hartzen ditu martxoaren 14ra arte sua itzali ondoren egindako airearen zaintzaren emaitzak ere; horri esker, kutsatzaile horiek ingurunean duten profila egin daiteke, suteak eragindako emisioen inpakturik gabe.

3.- KONPOSATU ORGANIKO LURRUNKORRAK

Konposatu organiko lurrunkorrak (KOL) giro-tenperaturan gas-egoeran agertzen diren edo tenperatura horretan oso lurrunkorrak diren konposatu organikoak dira. Jatorri naturala zein antropogenikoa dute (disolbatzaile organikoak lurrunzeagatik, erregaiak erretzeagatik, garraiatzeagatik eta halako arrazoiengatik sortuak).

Konposatu organiko lurrunkor terminoak mota askotako konposatu kimikoak biltzen ditu; esate baterako, hidrokarbuero alifatikoak eta aromatikoak, hidrokarbuero kloratuak, aldehidoak, zetonak, eterrak, azidoak eta alkoholak.

Konposatu organiko lurrunkorren talde horrek osasunean dituen eraginak asko alda daitezke konposatuaren arabera; gerta liteke toxikotasun-maila handia izatea, baina baita efektu ezagunik eza ere. Efektu horiek konposatu bakoitzaren izaeraren, airean dagoen kontzentrazioaren eta airearekiko esposizio-aldiaren arabera izango dira.

Epe laburreko esposizioak hainbat efektu eragin ditzake, hala nola begietako eta arnasbideetako narritadura, buruko mina, zorabioa, ikusmen-nahasmenduak, nekea, koordinazio-galera, azalaren erreakzio alergikoak, goragaleak eta memoriaren nahasmenduak. Esposizioa denbora luzez gertatzen denean, konposatu organiko lurrunkorrek kalteak eragin ditzakete gibelean, giltzurrunetan edo nerbio-sistema zentrolean (Rumchev *et al.*, 2007). KOL batzuek efektu kantzerigenoa dute, adibidez, bentzenoak (IARC, 2018).

3.1 MATERIALA ETA METODOA

3.1.1 Laginak hartzea eta laginketa-ekipamenduak

Konposatu organiko lurrunkorrak etengabe lagindu ziren onlineko kromatografoekin, zeinen bidez ordubetetik behin eskuratzen baitira emaitzak gutxi gorabehera (UM 7 eta UM 8 unitate mugikorrek). Halaber, eskuzko laginak ere hartu ziren, ondoren UM 7an zenbatetsitako hodiekin.

Unitate mugikorretako laginak 10 (UM 7) eta 25 (UM 8) minutuko aldietan hartzen dira, eta 0,5 l/min eta 40 ml/min-ko emarietan, hurrenez hurren. Eskuzko laginketarako, ponpa bat erabiltzen da aire-hargunea eta lagindu beharreko emaria programatzeko (0,33 l/min, 15 minutuko aldietan).

3.1.2 Kuantifikazio-metodoa

Kuantifikazioa egiteko, GC/MSD 5975T gas-masa unitate bati akoplatutako desortzio termikoko ekipamendu bat baliatu zen. Garatutako metodoari esker, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Amerikako Ingurumen Agentziak (USEPA) erreferentziatzen harturiko 172³ konposatu kalkulatu dituzte. KOL bakoitzaren kuantifikazio-muga 0,10 µg/m³ da. Laginak Osasun Sailaren Osasun Publikoko laborategian aztertu ziren. Azterturiko konposatu organiko lurrunkorren zerrenda [1. eranskinean](#) kontsulta daiteke.


³ 173 konposatu UM 8ren kasuan.

3.1.3 Laginketa-puntuak

Neurketa jarraituko ekipamenduetarako laginketa-puntuak hautatzeko, kontuan hartu ziren eragindako eremuko baldintza meteorologiko nagusiak (haizeen norabidea eta abiadura), bai eta biztanleen banaketa ere. Hori horrela, otsailaren 8an unitate mugikor bat (UM 7) jarri zen Ermuko San Lorentzo auzoan, eta 11n bigarren unitate bat (UM 8) Eibarko Untzaga plazan.

Gainera, konposatu organiko lurrunkorren immisio-mailen zaintza indartzeko, aldiari aldiari neurketak egin ziren eskuzko laginketen bidez. Horiek egunero planifikatzen ziren Euskalmeten eguneko aurreikuspen klimatologikoen arabera –sutearen eremurako zehazki–, eta, egiteko horretarako, egunero simulatzen eta berresten zen *in situ* keak har zezakeen ibilbidea. Hala, guztira eskuzko 54 laginketa egin ziren otsailaren 8tik 26ra bitartean, 11 laginketa-gunetan.

[2. eranskinean](#) adierazten dira laginketa-puntu jarraituen (finkoak) eta eskuzkoen kokapena eta koordinatuak.



3.1.4 Osasunerako eraginak ebaluatzeko metodologia

Gertakarian zehar konposatu organiko lurrunkorren emisioen inhalazio bidezko esposizioak biztanlerian izan ditzakeen arriskuak balioesteko, baheketa-balioak ezarri ziren, emaitzak lortu ahala balioetsi ahal izateko. Metodologia horren oinarrian hasierako bi baheketa-analisi daude: batetik, AEBko Gaixotasunak eta Substantzia Toxikoak Erregistratzeko Agentziak (ATSDR)⁴ eginikoa eta, bestetik, AEBko Ingurumena Babesteko Agentziak (USEPA)⁵ osasunerako arriskuak ebaluatzeko egindako gidetan deskribatutakoa.

Baheketarako balioak nazioarteko erakunde eta agentziek eragindako erreferentziako kontzentrazioetatik (EK) abiatuta lortu ziren. Erreferentziako kontzentrazio horiek zera adierazten dute: pertsonengan eragina duen substantzia jakin baten dosia edo kontzentrazioa, pertsonak substantzia horren esposiziopean egonik ere osasunerako ondorio kaltegarriak sortu gabe. Konparazio- edo *screening*-mailatzat hartu behar dira, eta ez inola ere toxikotasun-atalasetzat. Interesatzen zaigun esposizio-bide eta -aldirako (epe labur, ertain eta luzerako) eta osasun-ondorio mota desberdinetarako (minbiziarekiko eta minbizi-efektuarekiko desberdinak diren efektu akutu eta kronikoak) eskuragarri dagoen informazio toxikologikotik abiatuta eratoritzen dira.

Egindako hasierako baheketan, bi balio alderatzen dira: batetik, laginketetan antzemandako balio maximoak (orduko maximoak) eta, bestetik, minbizia ez den epe luzeko inpakturako erreferentziako kontzentrazioak (efektu kronikoa). Metodologia horri esker, kutsatzaileen mailak erreferentziako kontzentrazio horien azpitik daudenean, segurtasun-tarte handia duten arriskuak baztertu eta kutsatzaileen mailen joerak zaindu daitezke, behar izanez gero neurriak hartzeko adina denborarekin zaindu ere. Orduko balio maximoren batek hasierako maila hori gainditzen badu, bigarren baheketa bat egiten da, aztertutako aldiaren konposatuaren batez besteko kontzentrazioa epe luzeko erreferentzia berarekin konparatuz, eta, ordu-erreferentziarik ageri bada, harekin alderatzen da detektatutako orduko balio maximoa (ATSDR, 2016). Bigarren baheketako erreferentziak gainditzen ez badira, ulertuko da probabilitate txikia dela kutsatzailearekiko esposizioak eragindako ondorio kaltegarriak gertatzeko.

Gertaera hori ebaluatzeko, ez dira kontuan hartu minbizi-efekturako erreferentziak, bizi osoan zehar izandako esposizioek eragindako minbizi-arriskua minimizatzeko diseinatuta baitaude, eta, beraz, ez dira garrantzitsuak baheketa egiteko eta sutearen ondorioz agerturiko ingurumen-kutsatzaileen kontzentrazioek osasun publikoan duten berehalako inpaktuak ebaluatzeko.

Baheketa-balioak ezartzeko, erreferentzia hauek kontsultatu dira:

- Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) gidatzeko eta xede balioak⁶.
- Minimal Risk Levels (MRL)⁷, ATSDR.
- Reference Concentration (RfC)⁸ IRIS (Integrated Risk Information System) sistemaren datu-bankuarena, USEPAk deribaturik.

⁴ <https://www.atsdr.cdc.gov/hac/PHAManual/toc.html>

⁵ <https://www.epa.gov/risk/guidelines-human-exposure-assessment>

⁶ Hemen eskuragarri: <http://www.euro.who.int/en/publications/abstracts/air-quality-guidelines-for-europe>

⁷ MRL balioak substantzia arriskutsu batekiko eguneroko esposizioaren zenbatespena dira, esposizio-aldi jakin batean osasun-eragin kaltegarriak gabe pertsonak jasan dezaketen esposizioarena, alegia. Hemen eskuragarri: <http://www.atsdr.cdc.gov/mrls/mrlolist.asp>

- Provisional Peer-Reviewed Toxicity Values (PPRTV)⁹, USEPA.

Aurreko datu-baseetan erreferentzia-baliorik ez duten konposatuen kasurako, honako hauek ere kontsultatu dira:

- Reference Exposure Levels (REL)¹⁰, Ingurumena Babesteko Kaliforniako Agentziaren (CalEPA) OEHHA (Office of Environmental Health Hazard Assessment) bulegoak deribatuak.
- Effects Screening Levels (ESL)¹¹ eta Air Monitoring Comparison Values (AMCV)¹², Texaseko Ingurumen Kalitatearen Batzordea (TCEQ).

Kutsatzaile berarentzako erreferentzia desberdinak izanez gero, agentzia nagusiek emanikoak lehenetsi dira hautaketa egitean (OME, ATSDR eta USEPA), eta, horien artean, erreferentzia baxuena hartu da. OEHHA eta TCEQ erakundeen erreferentziak aurreko agentzietan erreferentziarik ez zuten konposatuentzat bakarrik erabili dira, eta, haien artetik ere, erreferentziarik murriztaileenak hautatu dira.

C5-C8 (GR_AL1) eta C9-C18 (GR_AL2) kate laburreko hidrokarburo alifatikoen eta C9-C16 (GR_AR) kate ertaineko aromatikoaren kasuan –horiek ez daukate esleituta toxikotasun-kontzentrazio espezifikorik–, EPAk garatutako metodologiari jarraitu zaio (*Hidrokarburo alifatikoen eta aromatikoaren nahasketa konplexuetarako behin-behineko toxikotasun-balioak* dokumentuan zehaztuak, alegia). Hori horrela, taldearen ordezkari edo subrogatutzat jotzen den konposatuaren edo konposatu-nahasketaren erreferentziako kontzentrazioa esleitzen zaie hidrokarburoen frakzio edo talde desberdinei. Kate laburreko alifatikoei hexano komertziala esleitu zaie ordezkari gisa. Kate ertaineko alifatikoei, berriz, frakzio horren nahasketa komertzialari –aromatikoaren % 1 baino gutxiago du– dagokion erreferentziako kontzentrazioa esleitu zaie. Kate ertaineko aromatikoaren taldeari sutze-puntu handia duen nafta aromatikoaren frakzioari dagokion toxikotasun-balioak esleitzen zaizkio.

Orto, meta eta paraxilenoaren kasuan, hiru isomeroen nahasketaren toxikotasun-erreferentziako balioa hartzen da kontuan. Trimetilbentzenoek (1,2,3-trimetilbentzenoa, 1,2,4-trimetilbentzenoa eta 1,3,5-trimetilbentzenoa) erreferentziako kontzentrazio bera dute; beraz, hiru horien batura alderatu

⁸ RfC (Reference Concentration) – Inhalazio bidezko esposizio jarraitu baten kontzentrazio-mailaren kalkulua (ziurgabetasun-maila bat, agian magnitude-ordena bat hartzen duena), esposiziopean dagoen giza populazioak bizitza osoan jasateko modukoa (azpitalde sentikorrek barnean harturik), osasunerako ondorio kaltegarririk hauteman gabe. Hemen eskuragarri: <https://cfpub.epa.gov/ncea/iris/search/index.cfm>

⁹ PPRTV - Provisional Peer Reviewed Toxicity Values for Superfund; behin-behineko erreferentziak dira, eta ez dute IRIS sisteman biltzeko adina adostasun. Hemen eskuragarri: <https://hhpprtv.ornl.gov/quickview/pprtv.php>

¹⁰ REL (Reference Exposure Levels edo erreferentziako esposizio-mailak) – Substantzia kimiko baten kontzentrazioak dira, zeinaren azpitik ibiliz gero jotzen baita probabilitate txikia dela minbizia ez den beste ondorio kaltegarri batzuk gertatzeko (azpitalde sentikorrek ere barnean harturik). Hemen eskuragarri: <http://oehha.ca.gov/air/allrels.html>

¹¹ ESL (Effects Screening Levels edo efektuen detekzio-mailak) – giza osasuna eta ongizatea babesteko ezarritako aireko kontzentrazioak dira. Eskuarki, lan-esposizioen mugetatik deribatuak dira, herritar guztiak oro har babesteko segurtasun faktoreekin zaturik. Hemen eskuragarri: https://www.tceq.texas.gov/toxicology/esl/list_main.html/#esl_2

¹² AMCV (Air Monitoring Comparison Values edo airea monitorizatzeko alderaketa-balioak).- AMCV termino generiko bat da, airearen monitorizazio-datuak ebaluatzeko baliatzeko produktu kimikoen aire-kontzentrazio espezifikoak deskribatzeko erabiltzen dena, gizakien osasuna eta ongizatea babeste aldera. Hemen eskuragarri: <https://www.tceq.texas.gov/toxicology/database/tox>

da. Azkenik, konposatu organiko lurrunkorrekiko esposizioaren adierazle orokor bat edukitzeko asmoz, konposatu organiko lurrunkorren guztizkoa (KOLG) aldagaia sortu da, ordu-neurri bakoitzean detektatutako konposatu organiko lurrunkor guztiak batuz (kuantifikazio-mugaren gaineratik).

Lege-erreferentziekin alderatzea

Airearen kalitateari buruzko araudian, konposatu organiko lurrunkor bakarra dago araututa: bentzenoa. Airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuak 5 µg/m³-ko muga-balioa ezartzen du bentzenoaren urteko batezbestekorako.

3.2 EMAITZAK

3.2.1 Laginketa jarraituak (Ermua eta Eibar)

Ermuko San Lorentzo auzoko 7. unitate mugikorrean (UM 7) 221 lagin eskuratu ziren sutea aktibo egon zen aldian (otsailaren 8tik 18ra), eta beste 593 lagin gerora, martxoaren 14ra arte, sutea itzali ondoren. Eibarko Untzaga plazan (UM 8) datu jarraituak daude otsailaren 12tik aurrera, guztira 166 datu-bilketa sutean zehar eta beste 659 sutearen osteko aldian.

Aztertutako 172 konposatu organiko lurrunkorretatik, 108 ez dira inoiz detektatu aztertutako aldian bi kokalekuetako batean ere.

Lehendabiziko taulan, aztertutako aldi osoan detektatutako konposatuen kopurua adierazten da, bai eta laginen % 10etan baino gehiagotan detektatutako konposatuen kopurua ere.

1. taula.- Detektatutako konposatuak

	ERMUA		EIBAR	
	Sutea aktibo	Sutea itzalita	Sutea aktibo	Sutea itzalita
Detektatutako konposatu-kopurua	47	45	56	57
detekzio % > % 10	26	29	32	21

Ez da alde garrantzitsurik ikusten sutearen garaiko eta ondorengo konposatu organiko lurrunkorren kopuruan bi kokalekuetako batean ere. Antzekoa da bi laginketa-puntuetan antzemandako konposatu organiko lurrunkorren profila.

[3. eranskinean](#) dago eskuragarri laginen batean kuantifikazio-mugaren (KM) gaineratik detektatu diren konposatuen estatistika deskribatzailea. Bi kokalekuetan, bentzenoaren, etilbentzenoaren eta estirenoaren batezbestekoek behera egin zuten sutea itzaltzean. Ermuan, suteak iraun bitartean detektatu ziren hiru konposatu horien balio maximoak. Eibarren otsailaren 22an detektatu zen etilbentzenoaren maximoa, 8:30ak aldera.

Erreferentziekin egindako alderatzeak

Orduko balio bakarrak gainditu du hasierako baheketaren maila (ondorio kronikoetarako erreferentziako kontzentrazioak): Eibarren sute garaian detektatutako bentzenoaren orduko maximoak. Gainerako ordu-emaizta guztiak txikiagoak dira.

[4. eranskinean](#) zehazten dira kokapen bakoitzerako detektatutako konposatuak, kuantifikazio-mugatik gorako laginen kopurua eta ehunekoa, gehieneko ordutegia eta konposatu bakoitzaren batez besteko kontzentrazioa aldi bakoitzerako (sutea aktibo eta itzalita zegoenean), baita alderatzeko hautatu diren erreferentzia-kontzentrazioak ere.

Eibarren detektaturiko bentzenoaren orduko balio maximoak ($14,24 \mu\text{g}/\text{m}^3$) gainditu egin zuen ATSDRtik deribaturiko MRL kronikoa¹³ ($9,6 \mu\text{g}/\text{m}^3$). Balio hori otsailaren 13ko goizaldean antzeman zen (02:50ean), sutea aktibo zegoela. Ordu horren aurreko eta ondorengo orduko balioak 4,5 eta $1,2 \mu\text{g}/\text{m}^3$ izan ziren, hurrenez hurren.

Sutean izandako bentzenoaren batezbestekoa ($1,07 \mu\text{g}/\text{m}^3$) MRL kronikoarekin alderatu da (ATSDR, 2007, 2015ean berrikusitako gehigarria), bai eta OEHHak konposatutako horretarako deribaturiko orduko gehieneko RELarekin ere (OEHHA, 2008, 2014an berrikusia) (2. taula). Detektatutako balioak interes-aldiari dagozkion erreferentzien azpitik daude; beraz, aukera gutxi ikusten dira kutsatzaile horrekiko esposizioaren ondoriozko ondorio kaltegarriak gertatzeko.

2. taula. Bentzenoaren orduko eta batez besteko maximoak eta erreferentziako kontzentrazioak ($\mu\text{g}/\text{m}^3$).

	Sutea aktibo		Sutea itzalita		ERREFERENTZIAKO KONTZENTRAZIOA	
	Orduko maximoa	Batezbestekoa (SD)	Orduko maximoa	Batezbestekoa (SD)	REL 1h (OEHHA)	MRL kronikoa (ATSDR)
Bentzenoa, Eibar ($\mu\text{g}/\text{m}^3$)	14,24	1,07 (1,40)	3,21	0,45 (0,37)	27 $\mu\text{g}/\text{m}^3$	9,6 $\mu\text{g}/\text{m}^3$
Bentzenoa, Ermua ($\mu\text{g}/\text{m}^3$)	9,56	0,90 (1,20)	2,20	0,40 (0,32)		

Legediak dioenarekin alderatzea

Airearen kalitatea hobetzeari buruzko Errege Dekretuan (urtarrilaren 28ko 102/2011) bentzenoarentzako ezarritako urteko muga-balioa $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa da, urtebeteko batezbesteko gisa.

3.2.2 Eskuzko laginketak

Eskuzko 54 laginketa egin dira 11 puntutan otsailaren 8tik 26ra bitartean. Puntu bakoitzeko lagin kopurua aldakorra da: batzuetan laginketa bakarra eta beste batzuetan 21 ere bai.

3. taulan zehazten da puntu bakoitzean gutxienez lagin batean detektatutako konposatuen kopurua. Izartxo batekin markatutako lekuetan, sutea itzalita zegoenean hartu zituzten laginak. Aztertutako 172 konposatuetatik 108 ez dira detektatu eskuz egindako laginketetan.

¹³ MRL kronikoa. Pertsonak jasan dezaketen substantzia arriskutsu batekiko eguneko esposizioaren zenbatespena, betiere 365 egunetik gorako aldiaren osasunerako ondorio kaltegarrien arrisku nabarmenik eragin gabe.

3. taula.- Identifikaturiko konposatuen kopurua. (n=lagin-kopurua)

EIBAR					ELGETA		ERMUA	MALLABIA		ZALDIBAR		
Amaña (n=4)	Ospitalea (n=1)	Santaines (n=21)	Untzaga (n=3)	Urkizu (n=1)	Landetxea (n=1)	Herria (n=2)	Ermua (n=1)	Elmoste 8 (n=1)	Elmoste 8 (n=1)*	Eitzaga (n=9)	Eitzaga (n=8)*	Herria (n=1)
41	16	58	38	31	9	10	21	19	28	46	50	17

Ingurumen sailburuordearen “2020ko otsailaren 6ko luiziaren ondoren Zaldibarko zabortegiaren inguruko airearen kalitate mailak monitorizatzeari buruzko txostenean”¹⁴ datak, ordutegiak eta laginketa-puntuak biltzen dituen laburpena kontsulta daiteke. Txosten horrek eranskin gisa dauzka Osasun Publikoko Laborategiak egindako txostenak, eskuko laginketa bakoitzean identifikatutako konposatuekin eta emaitzekin.

Erreferentziekin egindako alderatzeak

Orduko maximo batek ere ez ditu gainditzen erreferentziako kontzentrazioak, epe luzeko minbiziarenak ez diren efektuei dagokienez. Eskuzko laginketetan detektatutako bentzeno maximoa ($3,38 \mu\text{g}/\text{m}^3$) Zaldibarren (Eitzaga) detektatu zen otsailaren 18an, sutea aktibo zegoela. Leku horretan, egun berean, eskuzko estireno-laginketen maximoa ere detektatu zen.

[4. eranskinean](#) (4C), laginketa-puntu bakoitzerako orduko maximoak zehazten dira, baita alderatzeko baliatu diren erreferentziako kontzentrazioak ere.

3.3 EZTABAIDA

Argitalpen gutxi ditugu zabortegietan piztutako suteek ingurugiroko airearen kalitatean duten eraginari buruz. 2014an Kanadan gertatutako zabortegi bateko sutea hiru hilabetez egon zen aktibo (Weichenthal *et al.*, 2015), eta airearen kalitatea zertan zen aztertu zuten. Zaintza horrek barnean hartzen zituen konposatu organiko lurrunkorren, hidrokarbuo aromatiko poliziklikoen eta material partikulatuari eta dioxina eta furanoi lotutako metalen mailak. Egileen arabera, sutearen inpaktua argi eta garbi ikusten da bentzeno eta dioxina/furano mailetan.

Konposatu organiko lurrunkorrei dagokienez, artikuluan bentzenoaren emaitzak ematen dira –huraxe hartzen da talde osoaren ordezkariatza–. Sutea aktibo zegoenean, bentzenoaren batezbestekoa (24 orduko laginak) $1,13 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koa izan zen. Sutea itzali ondoren, batezbestekoa $0,163 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ra jaitsi zen. Zaldibarko zabortegiko sutean, sute aktiboaren bentzenoaren batezbestekoak 1,07 dira Eibarren eta $0,90 \mu\text{g}/\text{m}^3$ Ermuan, eta 0,45 eta $0,40 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ra jaisten dira hurrenez hurren hurrengo egunetan.

Mugak eta ziurgabetasunak

Ebaluazio honen emaitzak interpretatzeko, kontuan hartu behar da zer ziurtasun/ziurgabetasun maila ageri den unean uneko ezagutza-mailatik edo ebidentzia zientifikoaren mailatik eratorririk, osasunean dituen ondorio kritikoei eta erabilitako erreferentzia toxikologikoei dagokienez.

¹⁴ [Zaldibarreko zabortegiaren ingurunekeo airearen kalitate-mailaren monitorizazioari buruzko txostena](#)

Ebaluazio hau egiteko erabilitako erreferentzia-balio gehienak animaliekin egindako azterlan toxikologikoetatik lortu dira; beraz, pertsonei buruzko informazio toxikologikorik edo epidemiologikorik ez izateak nolabaiteko ziurgabetasun-maila eragiten du.

Bibliografian datu gutxi daude kutsatzaileen nahaste konplexuek osasunean izan ditzaketen ondorioak balioetsi ahal izateko. Aztertutako eremuan detektatutako konposatu askoren balorazioa banan-banan egin da. Bestalde, detektatutako konposatu alifatiko eta aromatiko askok ez dute erreferentzia toxikologiko propiorik, eta beste konposatu batzuetatik edo antzeko konposatuen nahasketetatik eratorritako behin-behineko erreferentzia-balioak erabili dira. Sutean sortutako kutsatzaileen nahasketak eta ketan dauden partikula esekiek litekeena da usainak eta eragozpenak eragin izana biztanleei esposizio-aldian.

Erreferentzia gutxi daude iraupen laburreko (orduak edo zenbait egun) edo tarteko esposizioen ondorio akutuak ebaluatzeko.

3.4 ONDORIOAK

Ermuan eta Eibarren unitate mugikorrek egindako KOLen zaintzaren emaitzek adierazten dute antzemandako kutsatzaile horien profilak antzekoak direla sute-garaian eta ondoren. Sutearen eragina konposatu batzuen kontzentrazioetan nabaritzen da, hala nola bentzeno eta estirenoaren kontzentrazioetan.

Kutsatzaileen kontzentrazioak epe luzeko esposizioei dagozkien erreferentzien azpitik daude, eta, beraz, ez da espero konposatu organiko lurrunkorrekiko esposizioak eragindako ondorio kaltegarri akuturik edo kronikorik.

3.5 BIBLIOGRAFIA

- ATSDR, 2005. Agency for Toxic Substances and Disease Registry. Public Health Assessment Guidance Manual (Update). U.S. Department of Health and Human Services Public Health Service. Atlanta, Georgia. (<https://www.atsdr.cdc.gov/hac/PHAManual/toc.html>)
- ATSDR, 2007. Agency for Toxic Substances and Disease Registry (ATSDR). 2007 (gehigarria 2015ean berrikusita). Toxicological profile for Benzene). Atlanta, GA: U.S. Department of Health and Human Services, Public Health Service
- ATSDR, 2016. Agency for Toxic Substances and Disease Registry. Public Health Assessment. Corpus Christi refineries (site wide activities). U.S. Department of Health and Human Services Public Health Service. Division of Community Health Investigations. Division of Toxicology and Human Health Sciences. Atlanta, Georgia.
- ATSDR, 2019. Agency for Toxic Substances and Disease Registry. Toxicological Profile for Tetrachloroethylene. U.S. Department of Health and Human Services, Public Health Service. Atlanta, Georgia.
- EPA, 1991. Environmental Protection Agency (EPA). Integrated Risk Information System (IRIS) Chemical Assessment Summary for Acetophenone. National Center for Environmental Assessment. (https://cfpub.epa.gov/ncea/iris2/chemicalLanding.cfm?substance_nmbr=321)
- EPA 2009a. U.S. Environmental Protection Agency (EPA). Provisional Peer Reviewed Toxicity Values for Complex Mixtures of Aliphatic and Aromatic Hydrocarbons. Cincinnati Ohio: Superfund Health Risk Technical Support Center National Center for Environmental Assessment: Office of Research and Development., US Environmental Protection Agency; 2009a.
- EPA, 2011. Environmental Protection Agency (EPA). Provisional Peer-Reviewed Toxicity Values for Acetophenone. Superfund Health Risk Technical Support Center National Center for Environmental Assessment Office of Research and Development. EPA/690/R-11/002F Final. U.S. Environmental Protection Agency. Cincinnati, OH 45268 (<https://cfpub.epa.gov/ncea/pprtv/documents/Acetophenone.pdf>)
- EPA, 2012. U.S. Environmental Protection Agency (EPA). Toxicological review of tetrachloroethylene (Perchloroethylene). In Support of Summary Information on the Integrated Risk Information System (IRIS) 2012. EPA/635/R-08/011F. Washington, DC: EPA. (https://cfpub.epa.gov/ncea/iris/iris_documents/documents/toxreviews/0106tr.pdf)
- EPA, 2019. U.S. Environmental Protection Agency (EPA). Guidelines for Human Exposure Assessment. (EPA/100/B-19/001). Washington D.C. Risk Assessment Forum, U.S. EPA. Hemen eskuragarri: (<https://www.epa.gov/risk/guidelines-human-exposure-assessment>)
- IARC, 2018. International Agency for Research in Cancer. Benzene. IARC Monographs on the Evaluation of Carcinogenic Risks to Humans Volume 120. Lyon, France – 2018. (<https://monographs.iarc.fr/list-of-classifications/>)

Molhave L. (2001). Sensory irritation by VOCs: 12 exposure experiments, chapter 25, in Molhave, L. (1991). Volatile Organic Compounds, Indoor Air Quality and Health. *Indoor Air*, 1, 357-376. Seifert B. (1990). Regulating Indoor Air. *Proc. Indoor Air* 5:35-39.

OEHHA, 2008. Technical Supporting Document for Noncancer RELs, Appendix D1. Updated 2014. (<https://oehha.ca.gov/air/chemicals/benzene>)

Rumchev K, Brown H, Spickett J. Volatile organic compounds: do they present a risk to our health? *Rev Environ Health* 2007;22(1):39–55.

Weichenthal S, Van Rijswijk D, Kulka R, You H, Van Ryswyk K, Willey J, *et al.* The impact of a landfill fire on ambient air quality in the north: A case study in Iqaluit, Canada. *Environ Res.* 2015;142:46-50.

WHO, 2000. World Health Organization. Regional Office for Europe. (2000). Air quality guidelines for Europe, 2nd ed. Copenhagen: WHO Regional Office for Europe. Hemen eskuragarri: <http://www.euro.who.int/en/publications/abstracts/air-quality-guidelines-for-europe>

4.- PARTIKULAK (PM₁₀), HIDROKARBURO AROMATIKO POLIZIKLIKOAK (HAP) ETA METAL ASTUNAK

Zaldibarko zabortegiaren inguruko airearen kalitatea ikuskatzean, hidrokarbuero aromatiko poliziklikoen (HAP) eta metalen mailen segimendua egin da, PM₁₀ partikulei loturik (hau da, 10 mikra baino gutxiagoko diametroa duten partikulak).

PM₁₀ frakzioak partikula lodiak (2,5-10 mikrakoak) ez ezik PM_{2,5} partikula finak ere biltzen ditu (2,5 mikra baino gutxiagokoak). Azken horiek (PM_{2,5}) albeoloetan geratzen dira, arnas sistemaren zatirik sakonenean, eta ondorio larriagoak eragin ditzakete osasunean. Lehenengoak prozesu mekanikoen bidez eratzen dira nagusiki, hala nola eraikuntza-jardueren, hauts-berresekiduraren eta haizearen bidez. Partikula finen jatorria mota guztietako errekuntzak dira, hala nola automobiletatik, energia-instalazioetatik, suteetatik eta industria-prozesu batzuetatik datozenak.

Partikula esekien inhalazioak giza osasunean izan ditzakeen eraginak hainbat faktoreren mende daude, eta hauexek dira garrantzitsuenak: esposizioaren iraupena eta partikularen tamaina eta konposizio kimikoa. Partikulekiko esposizioa osasunerako ondorio kaltegarri ugariarekin lotu da, bai epe laburrera, bai epe luzera. Ondorio nagusiak arnas sistemarekin eta sistema kardiobaskularrekin daude erlazonaturik; konparazio batera, beheko arnasbideen narritadura, biriken funtzioa murriztea haur eta helduengan, eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoaren (BGBK) intzidentzia areagotzea. Partikulekiko esposizioa beste efektu batzuekin ere lotu da, hala nola arterioesklerosiarekin, jaiotzean kontrako efektuak izatearekin, Alzheimerren gaixotasunarekin edo diabetesarekin (OME, 2015). Frogatuta dago eragin kaltegarrien arriskua areagotu egiten dela esposizioa handitu ahala, eta halaber, ez dago ebidentziarik, eraginik ez duen mailarik badela dioenik (OME, 2006).

Hidrokarbuero aromatiko poliziklikoak materia organikoaren errekuntza osatugabeen sortzen diren konposatu talde bat dira (biomasa, zura, diesela eta ikatza erretzean barne). Oro har, giroan ageri ohi dira hainbat konposaturen nahasketa gisa, eta bentzo(a)pirenoa (B(a)P) da guztien artean ikertuena –beraz, huraxe baliatzen da taldearen ordezkari nagusi gisa–. Oro har, hidrokarbuero aromatiko poliziklikoek animalengan duten toxikotasun akutua apala eta ertaina dela jotzen da (IPCS, 1998; EPA, 2006). Kontzentrazio handietan, B(a)P eta naftalenoak narritadura eragin dezakete begietan, bai eta larruazalaren sentibilizazioa ere animalietan (EPA, 2006; CDC, 2009). Minbiziak Ikertzeko Nazioarteko Agentziak (IARC) eta EPAk zehaztu dute bentzo(a)pirenoa kantzerigenoa dela gizakietan. IARCK, hain justu, I. taldeko kantzerigeno gisa sailkatzen du (IARC, 2012; EPA, 2017). Era berean, badira hainbat ebidentzia, erakusten dutenak B(a)P-rekiko esposizioak ondorio kaltegarriak eragin ditzakeela sistema kardiobaskularrean, minbiziak, neurogarapenaz edo jaiotza-pisuan dituen ondorioez bestela ere (OME, 2015).

Aireko partikuletan (PM₁₀) **metal astunak** egoteak jatorri natural eta antropogeniko ugari izan ditzake. Oro har, metalen jatorria askotarikoa da oso. Hala, ibilgailuen trafikoa hartu izan da antimonia (Sb), kobrea (Cu), zinka (Zn), barioa (Ba) eta halako metalak hiri-ingurunean egotearen arrazoitzat; banadioa (V) eta nikela (Ni), berriz, fuel-olioaren eta petrolio-kokearen errekuntzak eragindako emisioek eraginak izan ohi dira.

Osasun publikoaren ikuspegitik kezka handiena sortzen duten metalak artsenikoa (As), kadmioa (Cd), nikela (Ni), beruna (Pb) eta merkurioa (Hg) dira. Lehenengo hirurak (As, Cd eta Ni) kantzerigenoak dira

gizakiontzat. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) konposatu horietarako eta manganesorako, merkuriorako, banadiorako eta kromorako (VI kromoa) gida-balioak kaleratu ditu (OME, 2000).

Berunak gorputzeko organo eta sistema guztiei eragin diezaike, eta bereziki nerbio-sistemari, adimen-atzerapena, jaiotze goiztiarrak eta hazkunde-atzerapenak eraginez. Arseniko inorganikoa kartzinogenikoa da gizakiarentzat, narritagarria arnasbideetarako; odoleko, bihotzeko, gibelesko eta giltzurruneko kalteak eragin ditzake, eta, horretaz gainera, nerbio-sistema periferikoa aldaraz dezake. Kadmioa, eta bereziki kadmio-oxidoa, kartzinogenikoa da gizakiarentzat, eta bereziki eragiten die arnas, giltzurrun eta ugalketa sistemai. Nikel konposatu batzuk ere kartzinogenikotzat hartzen dira. Larruazaleko erreakzio alergikoak eragin ditzake, defentsa immuneari eta arnas eta giltzurruneko sistemai eragin diezaike, bai eta ugalkortasuna murriztu ere.

4.1 MATERIALA ETA METODOA

4.1.1 Laginak hartzea eta laginketa-ekipamenduak

Partikulen laginketa egiteko, DERENDA bolumen txikiko PM₁₀ partikulen bi kaptadore erabili ziren. Kaptadorearen iragazkiak Osasun Publikoko Laborategian aztertu ziren, 16 hidrokarbuero aromatiko polizikliko eta 16 metal astun zenbatesteko ([1B eranskina](#)).

Laginketak etengabeak izateko programatuta daude, eta iragazkiak 8 orduetik behin aldatu ziren otsailaren 23ra arte (zortzi orduko laginak). Hilaren 24an zortzi orduko HAP lagin bakarra dago, eta, 25etik aurrera, iragazkiak 24 orduetik behin aldatu ziren. Iragazki bakoitzetik HAP edo metalen zenbatespena lortzen da, iragazki osoa baita beharrezkoa prozesatzeko.

4.1.2 Teknika analitikoa

HAPen, metalen eta partikulen (PM₁₀) kontzentrazioak Osasun Publikoko Laborategian zenbatetsi ziren, indarrean dauden erreferentzia metodoei jarraikiz.

PM₁₀ frakzioa zehazteko, UNE-EN 12341:2015 arauak dioenari jarraitzen zaio.

PM₁₀ iragazkietako hidrokarbuero aromatiko poliziklikoak UNE-ISO 16362:2006 arauaren arabera aztertzen dira, azetonitrilo bidezko erauzketa-prozesu baten bidez. Analisi hori bereizmen handiko likidoen kromatografia bidez egin da (UPLC), fluoreszentzia-detekttagailuarekin eta array-diodoarekin. Konposatu bakoitzaren kuantifikazio-muga 0,10 ng/m³ da, azenaftilenoaren kasuan izan ezik, 0,20 ng/m³.

Material partikulatuaren kontzentrazio metalikoaren analisisa UNE-EN 14902:2006 arauaren arabera egiten da, ingurune azidoko digestioaren bidez. Erabilitako teknika instrumentala ICP-Masak da. [1. eranskinean](#) adierazten dira metal bakoitzaren kuantifikazio-mugak.

4.1.3 Laginketa-puntuak

Partikula-kaptadoreak bi tokitan egon ziren instalaturik: Ermuko San Lorentzo auzoan (UM 7) otsailaren 8tik, eta Eibarko ospitalean otsailaren 12tik.

Kokapena	Laginketa-puntua	Udalerrria	UTM30 ETRS89 koordenatuak	
			X	Y
1. kaptadorea (UM 7)	San Lorentzo ingurua	ERMUA	540859,67	4780794,16
2. kaptadorea	Eibarko ospitalea	EIBAR	542037,01	4781187,96



4.1.4 Osasunerako eraginak ebaluatzeko metodologia

Neurketen emaitzak airearen kalitatea hobetzeari buruzko 102/2011 Errege Dekretuan ezarritako legezko balioekin eta nazioarteko erakunde eta agentziek eragindako erreferentziako kontzentrazioekin (EK) alderatu dira.

Konposatu organiko lurrunkorretarako deskribatutakoaren antzeko metodologiari jarraitu zaio, eta hasierako baheketa bat egin da, zeinean detektatutako balio maximoak epe luzeko esposizioaldietarako eta minbiziaz bestelako eraginetarako erreferentziekin alderatu baitira. Balio maximoren batek hasierako maila hori gainditu badu, bigarren baheketa bat egin da, aztertutako aldiaren konposatuaren kontzentrazioaren batezbestekoa dagokion epe luzeko erreferentziarekin alderatuz.

Baheketa-balioak hautatzeko, konposatu organiko lurrunkorretarako adierazitako irizpide berak jarraitu dira (OME, ATSDR eta EPA erakundeetatik deribatuak, eta, haien artean alderik izanez gero, baliorik apalenak).

PM₁₀ partikulei lotutako HAP eta metalen emaitzak eskuratzeko, zortzi orduko eta 24 orduko laginketak baliatu dira. Kuantifikazio-mugaz azpiko emaitzetan, balio horren orde z mugaren erdia baliatu da (KM/2).

PM₁₀

Hautemandako PM₁₀ partikulen mailak legeetan ezarritako mugekin eta OMEren gida-balioekin alderatu dira. Zortzi orduko laginetatik datozen datuetarako, eguneko batezbestekoak alde z aurretik kalkulatu z egin da konparazioa.

4. taula.- OMEren gida-balioak eta 102/2011 Errege Dekretuaren lege zko mugak (urteko batez bestekoa eta eguneko muga) PM₁₀ partikuletarako.

PM ₁₀	Muga-balioa, 102/2011 Errege Dekretua	Muga-balioa, OME
URTEKO BATEZBESTEKOA	40 µg/m ³	20 µg/m ³
EGUNEKO BATEZBESTEKOA	50 µg/m ³ ezingo dira gaintu urtean 35 alditan baino gehiagotan	50 µg/m ³

Hidrokarbu ro aromatiko poliziklikoak

Bentzo(a)pirenoa (BaP) da airearen kalitatearen araudiak erregulatzen duen HAP bakarra. 102/2011 Errege Dekretuak, I. eranskinean, 1 ng/m³-ko helburu-balioa ezartzen du BaP-rako, PM₁₀ zatikian neurtuta, urte natural baten batezbesteko gisa.

Aztertutako 16 HAPetatik, minbiziari eta bentzo(a)pirenoari dagozkien epe luzeko ondorioetarako erreferentziak baino ez daude (5. taula)¹⁵.

5. taula.- HAPak balioesteko erabilitako erreferentziak (ng/m³)

HAP	(RfC) USEPA	(MRLc) ATSDR	102/2011 ERREGE DEKRETUA
Bentzo(a)pirenoa (ng/m ³)	2		1
Naftalenoa (ng/m ³)	3000	3670	

Metalak

Metalen kasuan, erabilitako erreferentziak oinarri zko metalari edo metalari eta haren konposatuei dagozkie.

Artsenikoak, kadmioak, nikelak eta berunak airearen kalitatea hobetzeari buruzko araudian ezarritako mugak eta xede-balioak dituzte (102/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa).

Osasunaren Mundu Erakundeak minbizia ez den beste ondorio batzuetarako gida-balioak eman ditu kadmio, berun, manganeso, merkurio eta banadioari dagokienez. Erreferentzia horiek guztiak urteko batez besteko balioei buruzkoak dira, banadioarako OMEren xede-balioa izan ezik, kasu horretan 24 orduko batezbestekorako baita (1000 ng/m³).

¹⁵ Konposatu horietarako, ez ditugu kontuan hartu ESL mailak (Effects Screening Levels), oso balio altuak baitira eta oso urrun baitaude detektatutako kontzentrazioetatik



6. taulan, balio horietaz gainera, baloraziorako hautatu diren erreferentziako kontzentrazioak (EK) ere adierazten dira, nazioarteko agentziek emanak. Ikus daitekeenez, artsenikoarentzat eta nikelarentzat ezarritako balioak minbiziaz bestelako efektu kronikoetarako hautatutako erreferentzia toxikologikoak baino murriztaileagoak dira, minbizi-efektutik ere babesteko diseinatuta baitaude. Ez da erreferentziarik aurkitu zerio, burdina, paladio eta selenioari buruz kontsultatutako datu-baseetan, balioespena egin ahal izateko.

6. taula.- Metalak balioesteko erabilitako erreferentziak

PM ₁₀ partikulaz osatua	102/2011 ERREGE DEKRETUA	Muga-balioa, OME	EK	Iturria
Artsenikoa (ng/m ³)	6		15	OEHHA
Barioa (ng/m ³)			500	EPA-PPRTV
Kadmioa (ng/m ³)	5	5	10	ATSDR
Zinka (ng/m ³)			2	ESL
Kobaltoa (ng/m ³)			100	ATSDR
Kobrea (ng/m ³)			1000	ESL
Kromoa (ng/m ³)			41	ESL
Manganesoa (ng/m ³)	-	150	50	EPA-IRIS
Merkurioa (ng/m ³)		1000	200	ATSDR
Nikela (ng/m ³)	20		90	ATSDR
Beruna (µg/m ³)	0,5	0,5	-	-
Banadioa (ng/m ³)		1.000 (24 h)	200	ESL

4.2 EMAITZAK

Laborategiaren txostenean kontsulta daitezke martxoaren 14ra arte lortutako datuak eta aztertutako aldi osoan eskuratutako emaitzen estatistika deskribatzailea ¹⁶

[4. eranskinean](#) jaso da PM₁₀ partikulen, hidrokarbuero aromatiko poliziklokoen eta metalen emaitzen estatistika deskribatzailea (sutea aktibo zegoeneko eta itzali ostekoa).

PM₁₀

Bi kokalekuetan eta aztertutako bi aldietan PM₁₀ partikulen batezbestekoak 102/2011 Errege Dekretuan urteko batezbesteko gisa ezarritako muga (40 µg/m³) baino txikiagoak dira, baina OMEren urteko gida-balioa (20 µg/m³) baino handixeagoak (7. taula).

¹⁶ [Zaldibarreko zabortegiaren inguruneke airearen kalitate-mailaren monitorizazioari buruzko txostena. 5. eta 6. eranskinak.](#)

7. taula.- PM₁₀ batezbestekoak (µg/m³), kokapenaren eta aldiaren arabera.

		SUTEA AKTIBO (otsailaren 8tik 18ra)		SUTEA ITZALITA (otsailaren 19tik martxoaren 14ra)		ALDI OSOA	
		Datu kop.	Batezbestekoa	Datu kop.	Batezbestekoa	Datu kop.	Batezbestekoa
ERMUA	PM ₁₀ µg/m ³	29	21	35	22	64	21
	PM ₁₀ µg/m ³ (eguneko batezbestekoa)	8	23	24	22	32	22
EIBAR	PM ₁₀ µg/m ³	18	20	35	24	53	22
	PM ₁₀ µg/m ³ (eguneko batezbestekoa)	5	22	24	23	29	23

Eguneko batez besteko balio-muga (50 µg/m³) gainditu egin zen otsailaren 28 eta 29an bi kokalekuetan (PM₁₀ maximoa Ermua eta Eibarren, 76 eta 73 µg/m³). Egun horietan PM₁₀ partikulen balio handiak erregistratu ziren oro har Euskal Autonomia Erkidego osoan, ziurrenik Sahara aldeko intrusioen ondorioz. Suteak iraun bitartean, detektatutako baliorik altuena (60 µg/m³) otsailaren 13ko Eibarko zortzi orduko lagin bati dagokio. Egun horri dagokion batezbestekoa 37 µg/m³-koa da.

OMEren gida-balioak (20 µg/m³) urteko batezbesteko gisa ezartzen dira; 36 egun baino hartzen ez dituen azterketa-aldi osoan, batezbestekoa 21 eta 22 µg/m³ baino handixeagoa da.

Hidrokarbuero aromatiko poliziklikoak

Aztertutako 16 HAPetatik, lau konposatu ez dira detektatu lagin bakar batean ere: azenaftenoa, fluorenoa, antrazenoa eta azenaftilenoa.

Bentzo(a)pirenoaren balio maximoa (1,56 ng/m³) Ermuan detektatu zen otsailaren 8an zortzi orduko lagin batean (16-24 ordu). Lagin horretan bertan, sutean hautemandako HAP guztien balio maximoak ere detektatu ziren, bentzo(a)antrazenoarenak izan ezik, zeinaren balio maximoa otsailaren 10ean erregistratu baitzen. Hurrengo laginetan, balioak azkar jaitsi ziren, eta sute aktiboarekiko B(a)P-ren batez besteko balioa 0,23 ng/m³ izan zen (8. taula). Kualitatiboki, nabarmentzekoa da zenbatetan detektatu zen krisinua Ermuan, sutea aktibo zegoenean (laginen % 68), ondorengo aldiarekin alderatuta (% 31) (ikus 4. eranskina). **Eibarren** HAP guztien balio maximoak sutea itzalita zegoela antzeman ziren, gehienak otsailaren 24an (00-08 bitartean).

Fase partikulatuko naftalenoa Ermuko bi laginetan antzeman da sutea itzalita, eta Eibarren, berriz, bi laginetan. Konposatu honen maximoa (0,28 ng/m³) Eibarren detektatu zen otsailaren 27an (24 orduko lagina).

Leku bakar batean ere ez zen gainditu bi konposatu horien erreferentzia-balioa. Bi kokalekuetan detektatutako bentzo(a)pirenoaren batezbestekoak 102/2011 Errege Dekretuan urteko batez besteko gisa ezarritako balioa baino apalagoak dira.

8. taula.- B(a)P eta naftalenoaren balio maximoak eta batezbestekoak¹⁷ eta erreferentziekin egindako alderatzeak.

ERMUA	SUTEA AKTIBO (n=19) (otsailaren 8tik 18ra)					SUTEA ITZALITA (n=16) (otsailaren 19tik martxoaren 14ra)			102/2011 ERREGE DEKRETUA
	n > KM	Maximoa	Batezbestekoa	EK	Iturria	n > KM	Maximoa	Batezbestekoa	
HAP PM ₁₀ (ng/m ³)									
Bentzo(a)pirenoa	10	1,56	0,23	2	EPA-IRIS	7	0,24	0,11	1
Naftalenoa	0	-	-	3000	EPA-IRIS	2	0,23	0,07	-

EIBAR	SUTEA AKTIBO (n=12) (otsailaren 12tik 18ra)					SUTEA ITZALITA (n=16) (otsailaren 19tik martxoaren 14ra)			102/2011 ERREGE DEKRETUA
	n > KM	Maximoa	Batezbestekoa	EK	Iturria	n > KM	Maximoa	Batezbestekoa	
HAP PM ₁₀ (ng/m ³)									
Bentzo(a)pirenoa	4	0,38	0,12	2	EPA-IRIS	7	0,85	0,15	1
Naftalenoa	0	-	-	3000	EPA-IRIS	2	0,28	0,07	-

¹⁷ Batezbestekoak aldi bakoitzeko datu erabilgarri guztiekin kalkulatu dira, 8 edo 24 orduko laginak diren kontuan hartu gabe. Suteak iraun zuen bitartean, lagin guztiak zortzi ordutik behin hartu ziren. Sutea itzali osteko laginketa-aldian, 8 orduko 7 lagin eta 24 orduko 9 lagin daude.

Metalak

Aztertutako 16 metaletatik, merkurioa eta beruna ez dira inon aurkitu, ez Ermuan, ez Eibarren.

9. eta 19. tauletan honako hauek adierazten dira: detektatutako balio maximoak eta aldi bakoitzeko batezbestekoak¹⁸, minbiziaz bestelako efektuetarako erreferentzia baxuenak –lehen adierazitako irizpideen arabera hautatuak–, eta 102/2011 Errege Dekretuan ezarritako balioak.

Ez dira gainditu ez ezarritako legezko balioak, ez erreferentzia-balioak, konparazio-erreferentziak dituzten metalen kasuan.

9. taula.- Ermuan antzemandako metalen balio maximoak eta batezbestekoak¹⁹, eta erreferentziekin egindako alderatzeak.

METALAK, ERMUA	Sutea aktibo (otsailaren 11tik 18ra) (n=10)			EK	Iturria	Sutea itzalita (otsailaren 19tik martxoaren 13ra) (n=19)			102/2011 ERREGE DEKRETU A
	n > KM	Maximo a	Batezbesteko a			n > KM	Maximo a	Batezbesteko a	
Artsenikoa, PM ₁₀ ng/m ³	2	0,66	<KM ²⁰	15	OEHHA	8	1,04	0,41	6
Barioa, PM ₁₀ ng/m ³	10	58,17	32,87	500	EPA-HEAST ²¹	17	48,97	15,49	
Kadmioa, PM ₁₀ ng/m ³	0	-	-	5	OME	1	0,57	<KM	5
Zerioa, PM ₁₀ ng/m ³	10	0,40	0,20			19	3,70	0,41	
Zinka, PM ₁₀ µg/m ³	10	0,15	0,09	2	ESL	13	0,15	0,07	
Kobaltoa, PM ₁₀ ng/m ³	10	2,03	0,45	100	ATSDR	19	0,97	0,20	
Kobrea, PM ₁₀ ng/m ³	9	45,62	18,36	1000	ESL	15	40,42	18,38	
Kromoa, PM ₁₀ ng/m ³	10	35,81	13,82	41	ESL	14	14,06	7,55	
Burdina, PM ₁₀ µg/m ³	10	1,31	0,59			18	2,85	0,63	
Manganesoa, PM ₁₀ ng/m ³	7	45,14	16,52	50	EPA-IRIS	14	56,17	17,65	
Merkurioa, PM ₁₀ ng/m ³	0	-	-	200	ATSDR	0	-	-	
Nikela, PM ₁₀ ng/m ³	5	26,20	6,64	90	ATSDR	9	7,50	<KM	20
Paladioa, PM ₁₀ ng/m ³	2	0,26	0,05			1	0,04	<KM	
Beruna, PM ₁₀ µg/m ³	0	-	-	0,5	OME	0	-	-	0,5
Selenioa, PM ₁₀ ng/m ³	2	1,03	<KM			6	4,73	0,60	
Banadioa, PM ₁₀ ng/m ³	6	0,78	0,44	200	ESL	14	6,23	0,88	

¹⁸ Batezbestekoak aldi bakoitzeko datu erabilgarri guztiekin kalkulatu dira, 8 edo 24 orduko laginak diren kontuan hartu gabe. Suteak iraun zuen bitartean, lagin guztiak zortzi ordutik behin hartu ziren.

¹⁹ Sutea itzali osteko laginketa-aldian, 8 orduko 7 lagin eta 24 orduko 9 lagin daude.²⁰ Batezbestekoak kalkulatzeko, kuantifikazio-mugatik beherako emaitzen ordez KM/2 baliatu da. Esandako muga lagin gutxitan gainditu duten konposatuen kasuan, gerta liteke kalkulaturako batezbestekoa txikiagoa izatea.

²⁰ Batezbestekoak kalkulatzeko, kuantifikazio-mugatik beherako emaitzen ordez KM/2 baliatu da. Esandako muga lagin gutxitan gainditu duten konposatuen kasuan, gerta liteke kalkulaturako batezbestekoa txikiagoa izatea.

²¹ EPA HEAST (Health Effects Assessment Summary Tables). Hemen eskuragarri: <https://epa-heast.ornl.gov/heast.php>

10. taula.- Eibarren antzemandako metalen balio maximoak eta batezbestekoak²², eta erreferentziekin egindako alderatzeak.

METALAK EIBAR	Sutea aktibo (otsailaren 14tik 18ra) (n=6)			EK	Iturria	Sutea itzalita (otsailaren 19tik martxoaren 13ra) (n=19)			102/2011 ERREGE DEKRETU A
	n > KM	Maximo a	Batezbesteko a			n > KM	Maximo a	Batezbesteko a	
Artsenikoa, PM ₁₀ ng/m ³	2	0,5	<KM	15	OEHHA	8	1,1	<KM	6
Barioa, PM ₁₀ ng/m ³	4	31,1	16,18	500	EPA-HEAST	16	52,3	15,55	
Kadmioa, PM ₁₀ ng/m ³	0	-	-	5	OME	1	0,5	<KM	5
Zerioa, PM ₁₀ ng/m ³	4	0,3	0,12			19	3,6	0,37	
Zinka, PM ₁₀ µg/m ³	3	0,1	0,05	2	ESL	13	0,2	0,07	
Kobaltoa, PM ₁₀ ng/m ³	6	1,0	0,27	100	ATSDR	18	0,9	0,19	
Kobrea, PM ₁₀ ng/m ³	3	27,7	13,95	1000	ESL	17	54,4	21,11	
Kromoa, PM ₁₀ ng/m ³	6	18,4	10,47	41	ESL	15	25,2	9,03	
Burdina, PM ₁₀ µg/m ³	6	0,7	0,34			19	2,-7	0,55	
Manganesoa, PM ₁₀ ng/m ³	3	31,8	11,12	50	EPA-IRIS	13	48,4	16,90	
Merkurioa, PM ₁₀ ng/m ³	0	-	-	200	ATSDR	0	-	-	
Nikela, PM ₁₀ ng/m ³	2	9,8	<KM	90	ATSDR	9	11,8	4,08	20
Paladioa, PM ₁₀ ng/m ³	1	0,05	<KM			0	-	-	
Beruna, PM ₁₀ µg/m ³	0	-	-	0,5	OME	0	-	-	0,5
Selenioa, PM ₁₀ ng/m ³	0	-	-			9	4,5	0,59	
Banadioa, PM ₁₀ ng/m ³	2	0,6	<KM	200	ESL	10	5,7	0,70	

4.3 EZTABAIDA

PM₁₀ partikulen balio altuenak suteak itzali zirenean detektatu dira, ziurrenik Sahara aldetik etorritako intrusioek eraginda. Kanadako Iqaluit zabortegiko sutean ere partikulen mailak ez zuen igoera nabarmenik izan (kasu hartan, PM_{2,5} partikulak neurtu zituzten), haizearen araberrako igoera puntaletan izan ezik (Weichenthal *et al.*, 2015).

Hidrokarbuero aromatiko poliziklikoen kasuan, sutearen eragina nabaritzen da, batez ere Ermuan otsailaren 8an jasotako lehen laginean. Egun hartan harturiko zortzi orduko lagin batean detektatu zituzten bentzo(a)pirenoaren maximoa eta aztertutako HAP guztien baturaren baliorik altuena (8,66 ng/m³)²³. Konposatu horien kontzentrazioa berehala jaitsi zen ondorengo laginketetan, itzalitako sutearekin antzemandako mailetaraino. Eibarren ez da antzeman eragin hori, baina kontuan hartu behar da HAPen lehen lagina hilaren 12koa dela. Antzeko suteetan hautemandako HAPen maileri buruzko datuak bilatu dira bibliografian. Ermuan, B(a)P-ren batez besteko balioa 0,13 ng/m³ murriztu

²² Sutea itzali osteko laginketa-aldian, 8 orduko 7 lagin eta 24 orduko 9 lagin daude.

²³ HAPen gutzizkoaren batura kalkulatzeko, kuantifikazio-mugatiki (KM) beherako balioak KM/2rekin ordeztu dira.



zen sutearen ondoren, 0,23tik 0,1 ng/m³-ra, hain justu. Iqaluiteko sutean, konposatu horren batezbestekoa 0,30etik 0,25 ng/m³-ra jaitsi zen sutea itzaltzean. 2016an Seseñan (Toledo) izandako pneumatikoen sutean (Nadal M, 2016), HAPen mailak askoz handiagoak izan ziren, eta 16 HAPen baturak 314 ng/m³-ko gailurra izan zuen. Hori horrela, Seseñan B(a)P-ren kontzentrazioa 1 ng/m³-tik gora mantendu zen

ezbeharraren aldi osoan; sutea hasi eta hiru egunera, PM₁₀ partikuletako B(a)P-ren kontzentrazioa 17,97 ng/m³-koa izan zen, eta 15 egunera, berriz, 25,09 ng/m³-raino igo zen.

Mugak eta ziurgabetasunak

Hidrokarbuero aromatiko polizikloei dagokienez, ez dago erreferentziarik minbiziaz bestelako efektu kronikoetarako, bentzo(a)pirenorako eta naftalenorako ezarritakoez harago. Konposatu horien epe laburreko efektuetarako erreferentziarik ere ez dago, baina, animalietan eskuraturiko datuek adierazten dutenez, sutean erregistratutakoak baino askoz kontzentrazio handiagoak behar dira begietako edo larruazaleko narritadura eta tankera horretako efektuak gertatzeko.

Metalen kasuan, onartu da detektatutako metalen edukiaren % 100 oinarritzko metala edo metala eta haren konposatuak direla, baina kontuan hartu behar da metal batzuk toxikotasun desberdineko forma kimikoetan ager daitezkeela giroan. Ez da aurkitu erreferentziarik zerio, burdina, paladio eta selenioarentzat.

Sutean erregistratutako konposatuen balioespena banan-banan egin da, baina populazioa kutsatzaileen nahasketaren eraginpean dago.

4.4 ONDORIOAK

PM₁₀ partikulen datuek ez dute aldaketa nabarmenik izan sutearen eraginez. Ermuan eta Eibarren, material partikulatuaren batezbestekoak antzeko mailan mantendu dira bi aldietan ere.

Ermuan eta Eibarren detektatutako PM₁₀ partikulen batezbestekoak –sutea aktibo zegoenean eta ondorengo aldian, itzali ostean– 102/2011 Errege Dekretuan urteko batezbesteko gisa ezarritako balioa baino txikiagoak dira, eta zertxobait gainditzen dute OMEren urteko batezbestekorako ezarritako gida-balioa. PM₁₀ partikulen eguneko muga-balioa otsailaren 28an eta 29an gainditu da bi kokalekuetan, sutea itzalita zegoenean. Egun horietan PM₁₀ partikulen balio handiak erregistratu ziren oro har Euskal Autonomia Erkidego osoan, ziurrenik Sahara aldeko intrusioen ondorioz.

Sutean erregistratutako PM₁₀ partikulei lotutako hidrokarbuero aromatiko polizikloen eta metalen batez besteko mailak esposizio kronikoetarako hautatutako erreferentziako kontzentrazioak baino txikiagoak dira; beraz, ez da gertagarritzat jotzen sutean zehar konposatu horiekiko esposizioak ondorio kaltegarri akutua edo kronikoa eragiterik.

4.5 BIBLIOGRAFIA

ATSDR, 1999. Agency for Toxic Substances and Disease Registry (ATSDR). Toxicological Profile for Mercury. 1999 (gehigarria 2013an berrikusita). Atlanta, GA: U.S. Department of Health and Human Services, Public Health Service (<https://www.atsdr.cdc.gov/toxprofiles/tp.asp?id=115&tid=24>)

ATSDR, 2004. Agency for Toxic Substances and Disease Registry (ATSDR). Toxicological Profile for Cobalt. Atlanta, GA: U.S. Department of Health and Human Services, Public Health Service (<https://www.atsdr.cdc.gov/ToxProfiles/tp.asp?id=373&tid=64>)

ATSDR, 2005. Agency for Toxic Substances and Disease Registry (ATSDR). Toxicological Profile for Nickel. Atlanta, GA: U.S. Department of Health and Human Services, Public Health Service (<https://www.atsdr.cdc.gov/toxprofiles/tp.asp?id=245&tid=44>)

ATSDR, 2005. Agency for Toxic Substances and Disease Registry (ATSDR). Toxicological Profile for Naphthalene, 1-Methylnaphthalene, and 2-Methylnaphthalene. Atlanta, GA: U.S. Department of Health and Human Services, Public Health Service (<https://www.atsdr.cdc.gov/ToxProfiles/tp.asp?id=240&tid=43>)

CDC, 2009. Centers for Disease Control (CDC). Polycyclic Aromatic Hydrocarbons (PAHs) fact sheet. Department of Health and Human Services. USA. CDC Environmental Health.

EPA, 1993. U.S. Environmental Protection Agency (EPA). Integrated Risk Information System (IRIS). Chemical Assessment Summary for Manganese. (https://cfpub.epa.gov/ncea/iris2/chemicalLanding.cfm?substance_nmbr=373)

EPA, 1998. U.S. Environmental Protection Agency (EPA). Toxicological Review of Naphthalene. In Support of Summary Information on the Integrated Risk Information System (IRIS). Washington, DC: EPA (https://cfpub.epa.gov/ncea/iris2/chemicalLanding.cfm?substance_nmbr=436)

EPA, 2006. US Environmental Protection Agency. Technical factsheet on: polycyclic aromatic hydrocarbons (PAHs). Washington, DC: EPA

EPA, 2017. U.S. Environmental Protection Agency (EPA). Toxicological Review of Benzo[a]pyrene. Integrated Risk Information System. National Center for Environmental Assessment Office of Research and Development. U.S. Environmental Protection Agency. Washington, DC: EPA (https://cfpub.epa.gov/ncea/iris2/chemicalLanding.cfm?substance_nmbr=136)

IARC. International Agency for Research in Cancer. Complete List of Agents evaluated and their classification. (2020ko ekainean kontsultatua). Hemen eskuragarri: (<http://monographs.iarc.fr/ENG/Classification/index.php>)

IARC, 2012. International Agency for Research in Cancer (IARC). Monographs on the evaluation of carcinogenic risks to humans. Volume 100 F. Sup 7, 92, 100F. A review of human carcinogens. Lyon, France - 2012

IPCS, 1998. International Programme On Chemical Safety. Environmental Health Criteria 202. Selected Non-Heterocyclic Polycyclic Aromatic Hydrocarbons. World Health Organization. (<http://www.inchem.org/documents/ehc/ehc/ehc202.htm>)



Nadal M, Rovira J, Diaz-Ferrero J, Schuhmacher M, Domingo JL. 2016. Human exposure to environmental pollutants after a tire landfill fire in Spain: Health risks. *Environ Int.* 97:37-44.

OEHHA, 2008. Technical Supporting Document for Noncancer RELs, Appendix D1. Updated 2014. (<https://oehha.ca.gov/chemicals/arsenic>)

Weichenthal S, Van Rijswijk D, Kulka R, You H, Van Ryswyk K, Willey J, *et al.* The impact of a landfill fire on ambient air quality in the north: A case study in Iqaluit, Canada. *Environ Res.* 2015;142:46-50.

WHO, 2000. World Health Organization. Regional Office for Europe. Air quality guidelines for Europe, 2nd ed. (<https://apps.who.int/iris/handle/10665/107335>).

WHO, 2006. World Health Organization. Regional Office for Europe. Air Quality Guidelines: Global Update 2005. Particulate Matter, Ozone, Nitrogen Dioxide and Sulfur Dioxide.

WHO, 2015. World Health Organization. Regional Office for Europe. WHO Expert Consultation: Available evidence for the future update of the WHO Global Air Quality Guidelines (AQGs)



5.- DIOXINAK

5.1 SARRERA

5.1.1 Orokortasunak

Dioxinak eta furanoak eta, oro har, dioxina-jardueradun konposatuak (*dioxin-like* ingelesez) konposatu organiko iraunkorren (KOI) taldean sartzen diren substantziak dira. Txosten honetan, dioxina deituko zaie. Konposatu kimiko horiek hiru talde organiko biltzen dituzte (dioxinak, furanoak eta dl-PCBak) substantzien multzo bakar batean, zeinaren definizio-ezaugarria baita antzeko egitura kimikoa, kloro atomoak ordeztzeko patroia eta eraztun bentzenikoen orientazio planarra edukitzea, eta, horren ondorioz, antzeko efektu edo adierazpen toxikoak antzematen zaizkie. 2,3,7,8-tetraklorodibenzo-p-dioxina (TCDD) da erreferentzia toxikologikoko molekula estandarra, eta, beraz, substantzia horren mekanismoarekin eta potentzia toxikologikoarekin lotuta ezartzen da efektu hori partekatzen duten substantzien multzorako deskribatzen den efektu toxikologikoa (EPA 2013). Klorazio-mailak eta kloro-atomoek eraztun aromatikoetan duten posizioaren arabera, dibenzoparadioxina polikloratuen 75 kide (PCDD), dibenzofurano polikloratuko 135 kide (PCDF) eta PCBen 209 kide zehaztu daitezke.

Dioxina-jarduera duten substantziak arestian adierazitako kide kopuruaren frakzio bat baino ez dira. Dioxina eta furanoen 16 kidek eta 12 dl-PCB-k (PCB *dioxin like*) Ah (arilo-hartzailea) zelula barneko hartzailearekin elkartzeko aukera ematen dien konfigurazioa dute, baina hori bai, afinitate desberdinarekin. Afinitate handiena 2,3,7,8-TCDD-ari ezartzen zaio. Aipatutako gainerako molekulen jarduera-balioak 1/10 eta 1/10000 aldiz txikiagoak dira. Kloro-atomo kopuru handiago batek, oro har, hartzailearekiko lotura txikiagoa dakar, eta, beraz, jarduera toxiko apalagoa.

Dioxinak eta furanoak oso konposatu egonkorak dira tenperatura altuetan, oso liposolubleak, uretan disolbaezinak eta biodegradazioarekiko erresistenteak. Haien egitura kimikoa eta ezaugarri fisiko-kimikoak direla eta, konposatu horiek gaitasun handia dute izaki bizidunetan bioakumulatzeko, batez ere gantz-ehunetan, eta, beraz, kate trofikoaren goiko mailetan integratzen eta metatzen dira.

PCBek edo bifenilo polikloratuek PCDD/PCDFen antzeko egitura dute. Bentzenozko bi eraztun elkartuta eratzen dira; horietan, hidrogeno-atomo bat edo gehiago kloro-atomoek ordezkatu dute. Gaur egun herrialde gehienetan debekatuta badago ere PCBak ekoiztea, historikoki erabilera handia izan dute isolatzaile dielektriko,ugar-atzeratzaile, itsasgarri, tindu, pintura, pestizida eta hainbat material-estalduratan erabiltzeko, eta, horren ondorioz, ingurumenera igortzen jarraitzen da, konposatu horiekin kutsatutako lekuetatik egiten diren emisioengatik eta, errekuntza-prozesuengatik.

5.1.2 Baliokidetasun toxikoko faktoreak (TEF) eta baliokide toxikoak (TEQ)

Forma desberdinen edo kideen toxikotasuna haien baliokide toxikoen edo baliokidetasun toxikoko faktorearen (TEF) bidez neurtzen da, eta, lehen adierazi den bezala, 2,3,7,8-TCDD erabiltzen da erreferentziako molekula gisa. Konbertsio-faktore horiei esker, jakin daiteke zer dioxina-efektu duen ingurumen-lagin batean edo lagin biologiko batean batera aurkezten diren substantzien nahasketa batek (hurrengo taula). Taula horretan, PCDD/PCDF eta dl-PCB bakoitzerako konbertsio-faktoreak erakusten dira. Identifikatutako eta zenbatetsitako substantzia bakoitzaren kontzentrazioak adierazteko, baliokidetasun toxikologikoari dagokionez hitz egin nahi badugu, beharrezkoa da haien kontzentrazioa dagokion konbertsio-faktorearekin biderkatzea. Azkenik, 29 substantzietako bakoitzetik lortutako TEQ balioak batzen dira, eta aztertutako nahasketaren dioxina-jardueraren balio osoa (TEQ) lortzen dugu.

TEQ metodoak Ah hartzaille zelularrekiko interakzioetatik eratorritako ondorio kaltegarri baido ez die erreferentzia egiten (minbizia, adibidez). Metodo horrek ez ditu kuantifikatzen dioxinen beste efektu toxiko batzuk. Azken urteetan, hainbat TEF baliatu dira dioxina/furano eta PCB nahasketen TEQak kalkulatzeko; beraz, literaturan, iTEQ edo WHO-TEQ bidez adierazitako PCDD/F eta PCB kontzentrazioak ikus daitezke. Hain zuzen ere, Osasunaren Mundu Erakundeak proposatu zituen WHO-TEQak. Txosten honetan, Osasunaren Mundu Erakundeak ezarritako erreferentzia-balioak (WHO-TEQ) erabili dira (OME, 2005).

Table 1-1. The toxic equivalency factors (TEFs) for the dioxin-like compounds using the WHO approach

Dioxin Congener	TEF	Furan Congener	TEF	Dioxin-Like PCB	TEF
2,3,7,8-TCDD	1.0	2,3,7,8-TCDF	0.1	PCB 77	0.0001
1,2,3,7,8-PeCDD	1.0	1,2,3,7,8-PeCDF	0.03	PCB 81	0.0003
1,2,3,4,7,8-HxCDD	0.1	2,3,4,7,8-PeCDF	0.3	PCB 126	0.1
1,2,3,6,7,8-HxCDD	0.1	1,2,3,4,7,8-HxCDF	0.1	PCB 169	0.03
1,2,3,7,8,9-HxCDD	0.1	1,2,3,7,8,9-HxCDF	0.1	PCB 105	0.00003
1,2,3,4,6,7,8-HpCDD	0.01	2,3,4,6,7,8-HxCDF	0.1	PCB 114	0.00003
OCDD	0.0003	1,2,3,4,6,7,8-HpCDF	0.01	PCB 118	0.00003
		1,2,3,4,7,8,9-HpCDF	0.01	PCB 123	0.00003
		OCDF	0.0003	PCB 156	0.00003
				PCB 157	0.00003
				PCB 167	0.00003
				PCB 189	0.00003

Notes: TCDD = tetrachlorodibenzo-*p*-dioxin; PeCDD = pentachlorodibenzo-*p*-dioxin; HxCDD = hexachlorodibenzo-*p*-dioxin; HpCDD = heptachlorodibenzo-*p*-dioxin; OCDD = octochlorodibenzo-*p*-dioxin; TCDF = tetrachlorodibenzofuran; PeCDF = pentachlorodibenzofuran; HxCDF = hexachlorodibenzofuran; HpCDF = heptachlorodibenzofuran; OCDF = octachlorodibenzofuran; TCB = tetrachlorobiphenyl; PeCB = pentachlorobiphenyl; HxCB = hexachlorobiphenyl; HpCB = heptachlorobiphenyl.

Source: Van den Berg et al. (2006).

5.1.3 Jatorria/Iturria

Ingurumenean ageri diren dioxina eta furanoen iturri nagusia errekontza da (Zook eta Rappe, 1994; Domingo *et al.*, 2000). Errekuntza-prozesuetan sartzen dira hondakinak erraustea –esaterako, udal-eta hiri-hondakin solidoak, araztegiko lohiak, hondakin medikoak eta hondakin arriskutsuak–, hainbat erregai erretzea –hala nola ikatza, zura eta petroliotik eratorritako produktuak–, tenperatura handiko beste iturri batzuk –zementu-labeak, esaterako– eta kontrolik gabeko errekontza-iturriak –basosuteak, sumendi-erupzioak, eraikinetako suteak eta bizitegi-egurra, besteak beste– (Clement *et al.*, 1985; EPA 2000; EPA 2013; Inserm, 2000; Thoma, 1988; Zook eta Rappe, 1994).

Iturri termikoen artean, hondakinak errausteko makinak identifikatu ziren dioxina-iturri nagusi gisa joan den mendeko 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren hasieran (Jones *et al.*, 1993; Eduljee *et al.*, 1996; Quaß *et al.*, 2000, 2004; Kim *et al.*, 2001; Burns *et al.*, 2010). Gaur egun, erraustegi modernoek hondakinak tratatzeko metodo efizienteagoak dituzte, eta eraginkorragoak dira dioxinen emisioak kontrolatzeko (Europako Batzordea, 2005).

Dioxinen beste iturri garrantzitsu batzuk dira burdina-galdategiak, altzairuaren eta findegien ekoizpena eta bigarren mailako galdategiak eta metal ez-ferrosoen finketa –aluminioa kasu–, metaletan ezpurutasun organikoak (plastikoa, pinturak eta disolbatzaileak) erretzearen ondorioz (Aittola *et al.*, 1992; EPA, 1987, 1997). Industria kimikoari dagokionez, dioxinak sortzen dituzte, era berean, paperaren fabrikazioan pulpa zuritzeak, kloroaren eta kloroaren deribatuen fabrikazioak eta produktu kimiko organiko halogenatuen fabrikazioak (pestizida batzuk, adibidez). Badira beste iturri lausoago batzuk, eta agian bigarren mailakoak: zaborrak eta hondakinak erretzea etxebizitzaren kanpoaldean (*backyard*), autoek eta kamioiek erretzen duten diesela, edo produktu organokloratuen dioxinak askatzea (pentaklorofenolak), zura babesteko egitekoetan.

5.1.4 Dioxinak eta haien ondorioak biztanleria orokorraren osasunean

Dioxinek izaki bizidunetan biometatzeko gaitasun handia dute, zehazki gantz-ehunean; hori horrela, gizakiek elikagaien bidez izaten duten haiekiko esposizio handiena, okupazio- edo istripu-esposizioak alde batera utzita (Kogevinas *et al.*, 2000). Oso kantitate txikietan sortzen diren arren, haietako batzuen toxikotasunak eragin du (batez ere 2,3,7,8-TCDDarenak) ingurumen-kutsatzaile garrantzitsu gisa tratatzea joan den mendeko 70eko hamarkadaren hasieratik. 2,3,7,8-TCDDaren toxikotasuna zitoplasma zelularrean AhR (Aromatic Hydrocarbons Receptor) hartzailearekin batzeko duen gaitasunaren ondorio da, eta, ondoren, geneetan eragiten du. Besteak beste, farmako eta substantzia toxikoek metabolismoan duten interferentzia, bai eta hormona esteroide, hazkunde-faktore eta beste elementu biokimiko batzuen mailetako alterazioak ere (Okey *et al.*, 1994). Dioxina-jarduera duten beste konposatuek –lehen ere aipatu ditugu– mekanismo bera erabiltzen dute, nahiz eta ez diren hain eraginkorrak hartzailearekiko loturan eta, beraz, ez dira hain toxikoak (Mimura & Fujii-Kuriyama, 2003).

Bestalde, Minbiziak Ikertzeko Nazioarteko Agentziak (IARC) lehendabiziko taldearen barruan sailkatu ditu 2,3,7,8-TCDD dioxina, 2,3,4,7,8-PeCDF furanoa eta dl PCBak (77, 81, 105, 114, 118, 123, 126, 156, 157, 167, 169, 189 PCBak); hau da, gizakiarentzat kantzerigenoak diren substantzien artean (IARC, 2015).

Dioxinak nonahi agertzen direnez, pertsona guztiak daude hondoko esposizioa deritzon mailan, eta dioxinen nolabaiteko kontzentrazioa dute organismoan: gorputz-karga deitzen zaio horri. Oro har, ez

dago ebidentziarik gaur egungo esposizio arruntak giza osasunean eraginik duenik. Hala ere, konposatu mota horren potentzial toxiko handia dela eta, eta arreta-printzipioa baliatuz, beharrezkotzat jotzen da hondoko esposizioa murrizteko neurriak hartzea (OME, 2016).

Dioxinen ezaugarri toxikologikoen ebidentzia handienak esperimenezko animalietan egindako azterketetatik datoz –batez ere karraskarietan, baina baita beste ugaztun batzuetan egindako esperimenez eta behaketetatik ere–. Behatutako efektu toxikologikoen artean, honako hauek nabarmentzen dira: dermatologikoak, metabolikoak, hepatikoak, immunologikoak, jaiotzean edo umetoki barruko garapenean izandako ondorioak, sortzetiko anomaliak, efektu endokrinoak, sexualak eta kantzerigenoak (ATSDR 1998, 2012an berrikusitako gehigarria).

Istripuen ondorioz erregistratutako gertaeren eskutik lortu da dioxinekiko esposizioak herritar guztien osasunean eragindako ondorioei buruzko informazio gehiago. Lehenengoa Sevesotik (Italia) gertu zegoen lantegi kimiko bateko istripua izan zen, 1976an. Plantaren eztagarriaren ondorioz, gizadiak inoiz ezaguturiko dioxinekiko esposizio-maila handiena geratu zen. Planta kimikoak 2,4,5-tiklorofenola fabrikatzen zuen, produktu farmazeutiko eta kosmetikoen sintesiko bitarteko substantzia. Beste bi gertakariak Japonian (Yusho) eta Taiwanen (Yucheng) sortutako elikadura-intoxikazioei dagozkie, joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan, hurrenez hurren.

Gizakiak dioxinen kontzentrazio handiekiko esposizio-aldi laburrek (esposizio akutua) larruazaleko lesioak eragin ditzake, hala nola kloraknea (horrelako substantziekiko esposizioaren koadro dermatologiko oso espezifikoak) eta orban ilunak, bai eta gibelaren funtzioaren alterazioak ere. Exposizio kronikoa hainbat funtzioaren asaldurarekin lotu da: asaldura immunitarioak eta hepatikoak, tentsio arteriala, bihotzarekin loturiko asaldurak, muskulu-sistema eta artikulazioenak, garatzen ari den nerbio-sistemaren asaldurak, sistema endokrinoarenak eta ugalketa-funtzioarenak. Halaber, hainbat minbizi motarekin –horien barruan, ehun biguneko sarkomak, sistema linfatikoko minbiziak eta hematopoietikoenak (Akahane *et al.*; 2018; Zubero *et al.*, 2017) eta bularreko minbiziarekin ere bai (Rodgers *et al.*; 2018)–. Era berean, hilkortasun handiagoa nabarmendu da oro har, izan arrazoi kardiobaskularrek, diabetesak edo minbizi jakin batzuek eraginda (Eskenazi *et al.*, 2018; Li *et al.*, 2013; Kashima *et al.*, 2015). Arestian aipatutako ondorio guztiak ez dira modu trinkoan ikusten esposizio bereziko biztanleria talde horiekin egindako azterlanetan; izan ere, emaitza kontrajarriak ageri dira, konparazio batera, diabetesari, nahasmendu metabolikoei, kardiobaskularrei edo haundunaldiko ondorioei dagokienez (Eskenazi *et al.*, 2018).

5.1.5 Emaitzak ebaluatzeko eskura ditugun erreferentziak

Dioxinen eraginpean egoteko bide nagusia elikagaiak dira, eta hainbat organismorekin loturiko erreferentziak ahoz harturikoak dira.

OMEren gida-balioak

1990ean, Osasunaren Mundu Erakundeak ezarri zuen eguneko ahorakin toleragarria (TDI)²⁴ 10 pg/kg gorputz-pisu dela TCDDen kasuan (pg/kg gorputz-pisu egunean). Muga hori 1998an berrikusi zen, eguneko ahorakin toleragarriko 1-4 pg TEQ-WHO/kg gorputz-pisu egunean ezarri zuten

²⁴ TDI (Tolerable Daily Intake) - Elikagaietan edo edateko uretan nahita gehitu ez den substantzia baten kantitatearen kalkulua (kutsatzaileak), bizitza osoan zehar kontsumi daitekeena osasunari arrisku nabarmenik eragin gabe.

dioxinetarako eta dioxina-jardueradun konposatuetarako. Balio horrek bizitza osorako eguneko ahorakina adierazten du; beraz, ez litzateke espero aldi laburretan TDI noizbehinka gainditzeak osasunean ondoriorik izatea, betiere batez besteko ahorakina ez bada denbora luzez gainditzen. Tarte horren goiko muga gehieneko ahorakin toleragarritzat hartu behar da, eta helburua eguneko irenste-mailak 1 pg TEQ-WHO/kg gorputz-pisu baino gutxiagora murriztea zen (OME, 2000).

2002an, Osasunaren Mundu Erakundeko Elikadura Aditiboetako Adituen Batzorde Mistoak (JECFA)²⁵ modu onargarrian ahoraturiko dioxinetarako (PCDD/PCDF) behin-behineko hileko ahorakin toleragarriak eguneko 70 pg TEQ-WHO/kg gorputz-pisu zirela ezarri zuen, esposiziopean izandako eme haurdunen ondorengo arretan izandako ugalketa-efektuak oinarri harturik (arratoietan). Balio hori hilabeterako adierazten zen, efektuak esposizio metatzaile eta kroniko akutuarekin lotzen direla adierazteko. Ahorakin toleragarria minbiziaz bestelako efektuetan oinarritzen bazen ere, minbizi-efekturako babesgarritzat ere hartzen zen. 2019an, Osasunaren Mundu Erakundeak balio hori ezarri zuen dioxinetarako gida-balio gisa (OME, 2019).

Nazioarteko beste erakunde batzuek ezarritako balioak

ATSDRak MRL balioa (Minimal Risk Levels)²⁶ deribatu du TCDDetarako, ahorakinen kasurako eta esposizio-aldi desberdinetarako: MRL akutua (1-14 eguneko esposizioetarako), bitartekoa (15-365 egun arteko esposizioak) eta kronikoak (urtebete baino gehiago edo are bizitza osoa). Dioxinetarako ezarritako MRL kronikoa 1 pg/kg gorputz-pisu da egunean (ATSDR 1998, 2012an berrikusitako gehigarria).

Ingurumena Babesteko Amerikako Estatu Batuetako Agentziak (EPA) 0,7 TEQ-WHO/kg gorputz-pisu ahorakinen erreferentzia-dosia (RfD)²⁷ ezarri zuen dioxinentzat 2012an, gizakiei buruzko datu epidemiologikoetatik abiatutako eredu farmakozinetikoak oinarri hartuta (EPA, 2012).

SCFk (EFSAren garai bateko Giza Elikaduraren Batzorde Zientifikoa) 2001ean 14 pg TEQ-WHO/kg gorputz-pisuko ahorakina ezarri zuen dioxinen kasurako eta dioxina antzeko PCBetarako (SCF, 2011).

Erreferentziako erakunde horiek guztiek egindako ebaluazioetan erabilitako ikuspegiak aintzakotzat harturik, EFSAk animalien eta gizakien osasunerako arriskuen ebaluazio osoa egin zuen 2018an, pentsuetan eta elikagaietan dioxinen eta dioxina-antzeko PCBen presentziarekin loturik. Hori horrela, ezarri zuen asteko ahorakin toleragarria (TWI)²⁸ 2 pg TEQ-OME/kg gorputz-pisu dela. Adituen batzordeak erabaki zuen gida-balioa asteko aldietan oinarritzea; izan ere, ez da espero eguneroko ahorakinen aldaketa puntualek serum-mailetan modu kritikoa areagotzea. Hori ezin da suposatu denbora luzeagorako (adibidez, hilean behin), ez badago azterlan eta eredu toxikozinetikorik pentsarazteko dosi altu bakar batek (adibidez, hileko ahorakin toleragarriaren erdiak) serum-mailan goia jotzea eragin dezakeela (EFSA, 2018).

²⁵ Joint Food and Agriculture Organization of the United Nations (FAO)/WHO Expert Committee on Food Additives (JECFA).

²⁶ Minimal Risk Level (MRL) balioak substantzia arriskutsu batekiko eguneroko esposizioaren zenbatespena dira, esposizio-aldi jakin batean osasun-eragin kaltegarririk gabe pertsonak jasan dezaketen esposizioarena, alegia.

²⁷ RfD –ahorakinen erreferentziako balioa– Eguneko ahorakin-dosi baten kalkulua (ziurgabetasun-maila bat, agian magnitude-ordena bat hartzen duena), esposiziopean dagoen giza populazioak bizitza osoan jasateko modukoa (azpitalde sentikorrek barnean harturik), osasunerako ondorio kaltegarririk hauteman gabe.

²⁸ TWI (Tolerable Weekly Intake). Astean kontsumitu daitekeen gehieneko elikagai-ahorakina (hala nola nutrienteak edo kutsatzaileak), osasunerako ondorio kaltegarrien arriskurik izan gabe.

11. taula.- Dioxinen erreferentziak

	ATSDR (1998)	JECFA (2002)	USEPA (2012)	EFSA (2018)
Erreferentzia-maila	MRL pg/kg/egun	TMI pg/kg gorputz- pisu/hilabete	RfD pg/kg gorputz- pisu/egun	PTWI pg/kg gorputz- pisu/aste
Aho-esposizio kronikoa	1	70	0,7	2
Aho-esposizio ertaina	20			
Aho-esposizio akutua	200			

Airerako erreferentziak

Osasunaren Mundu Erakundeak ez du gida-baliorik ezartzen airean dauden dioxinetarako; izan ere, inhalazio bidezko esposizioa esposizio osoaren proportzio txiki bat baino ez da (elikagai-ahorakinen bidezkoen % 1-2 ingurukoa). 2000ko airearen kalitaterako gidetan, dioxinen eta furanoen aire-kontzentrazioa 0,1 pg/m³-koa dela kalkulatu da. Aireko kontzentrazioak 0,3 pg/m³-koak edo hortik gorakoak izanez gero, identifikatu eta kontrolatu egin behar dira (OME, 2000).

5.1.6. Dioxinen presentzia hainbat ingurunetan

Oro har, airean dauden PCB, PCDD eta PCDFen mailak oso txikiak dira, emisio-iturrietatik hurbil dauden tokietan izan ezik. Disolbagarritasun txikia dutenez, uretako kontzentrazioak ere oso txikiak dira. Hainbat iturrietatik airera edo uretara doazen dioxinek (erraustegi desegokietatik, industrietatik edo hondakinetatik) lurzorua eta uretako sedimentuak kutsatzen dituzte, eta biometaketa eta biokontzentrazioa sortzen dira kate trofikoetan zehar. Dioxinak oso liposolubleak dira, eta horrek kontzentrazio handiagoak eragin ditzake elikagai koipetsuetan, hala nola esnekietan, arrain batzuetan, haragietan eta itsaskietan (OME, 2019). Populazio orokorraren esposizio handiena animalia-jatorriko elikagaiak kontsumituta izaten da. Izan ere, kutsatzaile horien ekarpenaren edo esposizioaren % 90-95 baino gehiago da elikadura (ANSES, 2011; Lobet *et al.*, 2003; Domingo *et al.*, 2007; Bergkvist *et al.*, 2008).

Dioxinek zazpi urtetik gorako erdibizitzan irauten dute gantz-ehunetan. Amagandiko edoskitzea dioxinekiko eta dioxina-motako konposatuekiko esposizio-iturri esanguratsua izan daiteke, nahiz eta ama-esnetan topatutako mailak behera egiten ari diren, luzetarako azterketek diotenez (OME, 2019).

Azken hamarkadetan, dioxinen mailak nabarmen murriztu dira, bai airean, bai elikagaietan. Hori horrela, joan den mendeko 90eko hamarkadan, Europa mendebaldeko, AEBko eta Japoniako PCDDen eta PCDFen aireko mailak nahiko alderagarriak ziren, nahiz eta balioen tartea zabala izan. Urruneko landa-eremuetan PCDD/F TEQ-ren 20 fg/m³-tik beherako mailak ageri ziren; hirietan, ehunka fg/m³ inguru; eta emisio-iturrietatik gertu, berriz, balio handiagoak (OME, 2000; Dopico *et al.*, 2015).

Elikagaien bidezko esposizioari dagokionez, EAEko 1999-2000 aldiko dieta osoaren azterlanaren emaitzek adierazi zuten populazio orokorraren eguneko batez besteko esposizioa 2,6 pg TEQ-WHO/kg gorputz-pisu zela eguneko (1994-1995 aldirako metodologia berarekin kalkulatuak) esposizioaren



% 60); horietatik % 31 dioxinak ziren, eta % 69, berriz, dioxina-motako PCBak (Jalón-Moreno *et al.*, 2006; Cuervo L, 2002). Valentziako Erkidegoan, 7.700 elikagai-laginetatik abiatuak, 1,58 eta 2,6 TEQ-WHO/kg gorputz-pisu egunean ahoratzea kalkulatu zen 15 urtetik gorakoentzat eta 6-15 urte bitarteko gazteentzat, hurrenez hurren (Quijano *et al.*, 2018).

5.2 MATERIALA ETA METODOA

5.2.1 Laginak hartzea eta laginketa-ekipamenduak

Laginak hartzeko, bolumen handiko kaptadore digital bat erabiliz, DHA-80 modelokoa. Kaptadorea 250 l/min-ko emarian kalibratu zen (\pm % 2) ENAC errotometro trazagarriarekin; horrek 360 m³-ko lagin-bolumena ematen zuen 24 orduko epean. Laginketa-material gisa, kuartzozko iragazki bat eta poliuretanozko apar bat (PUF) erabili ziren, saiakuntza-laboretegiek emandakoak, alde aurretik garbitu eta egokitu ondoren. Laginak bolumen handiko kaptadoreen bidez bildu ziren, eta batera aztertutako iragazki eta PUF banak osatu zuten lagin bakoitza.

5.2.2 Teknika analitikoa

Kimika Organiko Orokorreko Institutuan (IQOG, Madril), Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenean (CSIC, Madril) eta Sarriako Kimika Institutuan (IQS, Bartzelona) prozesatu zituzten laginak. Kimika Organiko Orokorreko Institutuak (IQOG) erreferentziako laboretegi gisa jardun zuen, emaitzen adierazpena homogeneizatuz.

Teknika analitikoak hainbat prozesatze-egun behar ditu. Laburbilduz, laginaren tratamendu-etapa bat eta zehaztapen instrumentaleko etapa bat ditu. Laginen tratamenduaren oinarria, lehenik eta behin, aztergai den matrizekiko intereseko analitoak ateratzea da, eta, ondoren, arazketa bat egitea, erauzi diren ezpurutasunak ezabatzeko; izan ere, horiek zaildu egin dezakete intereseko analitoak identifikatzea eta kuantifikatzea. Zehaztapen instrumentalean, intereseko analitoak identifikatu eta zenbatetsi egiten dira aurreko etaparen ondoriozko estraktuetan, bereizmen handiko masa-detektagailuei (GC-HRMS) akoplatutako gasen kromatografian oinarritutako teknika instrumentalak erabiliz.

Kontzentrazioak kalkulatzeko, *upperbound* hurbilketa erabili zen; horrek zera esan nahi du, kide bat teknikaren detekzio-mugaren azpitik detektatzen denean, kide horri bere detekzio-mugaren adinako kontzentrazio-balioa esleitzen zaiola. Kontzentrazioen azken kalkulua egiteko, ingurumen-baldintzetan lagindutako aire-bolumenak erabili ziren.

Guztizko baliokide toxikoak (TEQ, Toxic Equivalent Quantity) aztertutako analito bakoitzaren baliokidetasun toxikoaren faktoreen (TEF) arabera kalkulatu ziren, TEF-lak eta TEF-OMSak aplikatuz.

Erabilitako teknika analitikoari buruzko informazio zehatza laboretegien txostenetan dago eskuragarri ²⁹

²⁹ [Zaldibarreko zabortegearen inguruneke airearen kalitate-mailaren monitorizazioari buruzko txostena. 7., 8., 9. eta 10. eranskinak.](#)

5.2.3 Laginketa-puntuak

Hainbat puntutan hartu ziren laginak, dioxinen zenbatespena egiteko: Ermuko San Lorentzo auzoan (laginketak otsailaren 9an hasi ziren), Eibarko Untzaga plazan, Zaldibarko Eitzaga auzoan (otsailaren 15etik aurrera) eta Ermuko erdialdean (otsailaren 21ean hasi ziren).

Martxoaren 6ra arte daude eginda neurketak. Laginak 24 orduko, 48 orduko eta 72 orduko aldietan hartu ziren, neurketen unearen eta kokapenaren arabera. Egutegiko egun batean baino gehiagotan bildu ziren laginei bilketaren azken eguneko data esleitu zitzaizen. San Lorentzo auzoko 14. eguneko lagina 10 ordukoa izan zen, laginketaren programazioaren doikuntza-beharrak zirela eta.

	Laginketa-puntua	Udalerria	UTM30 ETRS89 koordenatuak	
			X	Y
1. kaptadorea	San Lorentzo ingurua	ERMUA	540859,67	4780794,16
2. kaptadorea	Untzaga plaza	EIBAR	542820,94	4781338,26
3. kaptadorea	Eitzaga auzoa	ZALDIBAR	540161,31	4780481,18
4. kaptadorea	Ermua erdia	ERMUA	540484,00	4781586,00



5.3 EMAITZAK

Sutea 11 egunetz egon zen aktibo. Guztira, 21 dioxina datu ditugu San Lorentzo auzoan (8 sutean zehar, 13 itzali ondoren), 11 Ermuko plazan (guztiak sutearen ondoren), eta beste 13 Eibarren eta Eitzagan (4 sutean zehar, 9 itzali ondoren).



Zaborteia sutan zen bitartean, PCDD/Fen batezbestekoa (desbideratze estandarra) eta balio maximoa (24 h) 693 (424) eta 1237 fg TEQ-WHO/m³ izan ziren San Lorenzo auzoan, 174 (144) eta 358 fg TEQ-WHO/m³ Eibarren, eta 221 (183) eta 463 fg TEQ-WHO/m³ Eitzagan (Zaldibar). Ikus 12. taula eta 1. irudia. San Lorentzo auzoaren kaptazio-denboraren batez besteko balio haztatua, sute-egunetan, 648 fg PCDD/F TEQ-WHO/m³ izan zen. Eibarren eta Eitzagan, batezbesteko haztatua bat dator suteak iraun bitartean izandako aritmetikarekin; izan ere, datu guztiek iraupen berbera dute (zehazki, 24 ordu).

Sutea itzali ondoren, izugarri jaitsi ziren dioxina-mailak. Batezbestekoak 14 eta 26 fg TEQ-WHO/m³ artekoak izan ziren, balio maximoak 28 eta 77 fg TEQ-WHO/m³ artekoak, eta balio minimoak, berriz, 5 eta 9 fg TEQ-WHO/m³ artekoak. Sutea aktibo zela, San Lorentzon, Eibarren eta Eitzagan haztatutako batezbestekoak 648, 174 eta 221 fg TEQ-WHO/m³ izan ziren. Hartutako lagin bakoitzean egindako analisisen emaitzak [6A eranskinean](#) aurkezten dira.

12. taula. PCDD/F TEQ-WHO mailak airean (fg/m³, CA), kaptadorearen kokapenaren eta sutearen egoeraren arabera.

	Ermua San Lorentzo	Ermua Udala	Eibar Untzaga	Zaldibar Eitzaga
Sutea aktibo (otsailak 7-18)				
Laginketa-aldia	Otsailak 10-18*		Otsailak 15-18	Otsailak 15-18
N	8	-	4	4
Batezbestekoa (SD)	693(424)	-	174(144)	221(183)
Tartea	135-1237§	-	20-358	49-463
Batezbesteko haztatua#	648	-	174	221
Sutea itzalita (otsailak 19 - martxoak 6)				
Laginketa-aldia	Otsailak 19 - martxoak 6	Otsailak 21 - martxoak 6	Otsailak 19 - martxoak 6	Otsailak 19 - martxoak 6
N	13	11	9	9
Batezbestekoa (SD)	26(18)	15(7)	14(10)	15(8)
Tartea	9-77	6-30	5-37	5-28
Batezbesteko haztatua*	23	15	13	14


* Laginketa hilaren 9an hasi zen, 14:00etan.

Aztertutako lagin bakoitzaren kaptazio-denboraren arabera haztatutako batezbestekoa.

§ 24 orduko balioak; 10 orduko balio bat 1.262 izan zen.

Hartutako 58 laginetatik 17tan, PCDD/Fez gain, dioxina motako PCBak (dl-PCB) aztertu ziren (6B.-eranskina). Lagin horietan, PCB TEQ-WHO partikulen batez besteko pisu erlatiboa (%) PCDD/F TEQ-WHO balioekin alderaturik (igoera hori PCDD/F TEQ-WHO emaitzari gehitu beharko litzaioke PCDD/F/PCB TEQ-WHO guztizkoa lortzeko) aldatu egiten da kokaleku batetik bestera, % 8 eta % 14 artean sutea aktibo zegoenean eta % 20 eta % 30 sutea itzali ondoren.

1. irudia. Airean dauden PCDD/F partikulen bilakaera denboran (TEQ-WHO, fg/m³, CA), kaptadorearen kokapenaren arabera.



13. taula. dl-PCB TEQ-WHO mailen balio erlatiboak aireko PCDD/F TEQ-WHO mailekin alderatuta (fg/m³, CA), kaptadorearen kokapenaren eta sutearen egoeraren arabera.

	Ermua San Lorentzo	Ermua Udala	Eibar	Zaldibar Eitzaga
Sutea aktibo (otsailak 9-18)				
N	3	EE	3	3
[dl-PCB]/[PCDD/F] (%) (TEQ-WHO)	% 14	EE	% 8	% 11
Sutea itzalita (otsailak 19 - martxoak 6)				
N	2	2	2	2
[dl-PCB]/[PCDD/F] (%) (TEQ-WHO)	% 30	% 25	% 20	% 25

5.4 EZTABAIDA

Zabortegiko suteak iraun zuen bitartean, PCDD/F emisioak izan ziren, eta, horren ondorioz, nabarmen igo ziren inguruko udalerrietako hiriguneetan airean zeuden PCDD/F (TEQ-WHO) mailak. Kutsadura handieneko erregistro-unean, balio horiek 60 aldiz gainditu zituzten Euskadiko eta Espainiako beste eremu batzuetan erregistratutako mailak, bai eta sutearen ondoren eremu hartan erregistratutako ere. Sutea itzali ondoren, izugarri jaitsi ziren PCDD/F mailak neurketa-puntu guztietan.

Lan honen ahulezia eta indargune garrantzitsuenak airean dauden dioxinen datuak dira. Datuak neurketa-puntu finkoetatik eratorriak dira, ez dago esposizio-neurri indibidualen daturik eta aldi osoko datuak San Lorentzo auzoko neurketa-puntu bano ez daude. Larrialdiaren unean, muga garrantzitsu bat emaitzak izan arte itxaron beharra izan zen, laginak garraiatzen emandako denboragatik eta, batez ere, teknika analitikoak laborategian egun batzuetako prozesamendua eskatzen duelako. Indargune gisa, berriz, aipa daiteke San Lorentzo izan zela emisioen inpakturik handiena izan zuen puntua; hala, berretsi egiten dira kokalekua aukeratzeko egindako iragarpenak (baldintza meteorologikoak eta luraren morfologia). Halaber, nabarmentzekoa da ia sutea hasi zenetik ditugula kutsatzaileen immisioari buruzko datuak.

Azken hamarkadetan, aireko PCDD/F mailak oro har murriztu egin dira herrialde industrializatuetan. Hainbat hamarkada atzera egin eta industria-jarduera handiko hiri edo ingurune handietara jo behar da, sutean erregistratutako balioetara hurbiltzen diren kontzentrazioak topatzeko. Erresuma Batuko 1991-2008 bitarteko datuek erakusten dute aldiaren amaieran batez besteko balioak 50 fg TEQ-WHO PCDD/F/m³-tik beherakoak direla; 90eko hamarkadaren hasieran, urteko batez besteko balioak ehunka fg/m³-tik gorakoak ziren, eta 14 eguneko laginetako gehieneko mailak, berriz, 1.100 fg/m³-tik gorakoak Manchesterren, 400 Middlesbroughen, eta 350 fg TEQ/m³-tik beherakoak Londresen (Katsoyiannis *et al.*, 2010).

